73. – Da olan, geixoak be sorginkerižegaitti, sorginkeri bategas edo arrapeu leittikesala ta ori, baegoan?

· Bai, ba amentxe, ementxe Bedian paseue da, neskatotxu bet geixoik txarto, da medikuek igerri esin, igerri esin. Da gero, onei sorginkerižoi, astue edo olan esatotzie

da, eroan dere ara. Esaotzie: aiena! Au geixoik tekona arrapetako, oillarrari atara biotzesue bixirik bižotza. Da, a lapikoan egosten ipiñi da etorriko žatzue gaisgiñe etxera.

– Ser etorriko žatzue?

· Gaisgiñe. Gaisgiñe esaten žako. Gaisgiñe etorriko žatzue etxera. D'alan erregular ixen bixeuen. Da gero, orreri erregular esaturien emen, noberak parkatu esien, esatebaterako, ba etxien umetxuek estaki parkamena zer dan ba, aittek et'amak parkatu esien berak sufriteideu.

– Gaisgiñek?

· Bai. Beiñ agertu eskero, berak sufriteideu parkatu esien.

– Da, geixo bardiñe sufrietan deu, berak?

· Antza. Antza. Da, ba or, apenas, parkatu'tzien. Da, txarto ibilli eisen d'esateitzen aittek: aiena! Nire alabatxuek sufridu deu, oiñ supe sufridu ein bisu. Da gero, pentzetot, uste dot, segun esateurien parkatutziela, dempora sati bet sertute, iñori geižau eiñ eseitteko kondesiñoan.

D'erregular berbia emon eskero esetz. esiñ ei dere. Erregular ori esateurien or.

– Da, selan libreu leittike, olako geixo bat, olako gaisgin bet egonda be, ba selan libre leittike norbera aren geixoa es arrapetako edo arek gure deuen geixoa es arrapetako?

· Bai, baia su konturetu barik inketotzu, or dau ba. Ai! Baleki! Nik paneki: julanok niri kalte einguruste geixoas, ai nik e, estudižeko neke, selan edo alan, joño! Maldesiñoa. Orrek, maldesiñotik ixen biko deu, uste dot. Se, nik beori selan geixotukot. Nik esi'neike beori eselan geixotu edo žakin biot maldesiñoak botaten edo ser edo a, nik estaitt, nik estaitt pa. Orrek gaisgiñok, se meritu dekien ortxe. Ai!, orixe balego. Da, askok esaten deu, sorgiñek. Nik parte txarrekoakas sekule estot siñestu te siñestuko bes. Parte txarrekoak personiai esin leižo eser eiñ. Se, eittekotan, iru urtien ibilli gaa gu, kalte eitteko lekuetatik. Basoik gitxi ikusi baik ibilli gaa, geubek dekosan orduen momentu gustižek, miñutu gustižek. Sekule parte txarrekoik estu ikusi. Nun daus parte txarrekoak? Nik sekule es tot euki parte txarrekoen billurrik. Da, onen gaisgiñen billurrik pes, e? Nik estaitt, onek al badustie niri inkeu; siñestu es tot eitten, neuk.

– Ser, basoan ibilli siñen dempora asko birrien ala?

· Gerran. Ir'urte paseuen, ize lau urte mendižen.

74. – Orduan geur, kontajižoa ta ori selan eitten da ori, da selan deitzen žako?

· Kontajižoa?

– Bai.

· Baia, geixoena? Geixoena kontajižoa ba-da, nik selan esplikekotzet ba. Kontajižoa, batzuk esaten dere ixerdiže be estala ona, estala ona. Baia nik uste dot, geižen kontajioa, nik geixoa badekot, «unicamente» nire arnasia beorrek erresibidu. Or, pentzot ongo dala, kontajižoan serik aundižena, neure ustes, e? Neure ustes.

– Seintzuk die olan, geižen kontajietan dien geixoak?

· Leen esaturien, au bulerretikoa, ori dala kontajio. Ostantxien, orrek bestiok, au pulmoniže, d'onek tifuse be kontajiosoa esateurien. Tifuse be bai, baia txarrena oixe, bulerretikoa.

Se, guk lenauko sarrak, sarretati dator ona.

– Esatebaterako, sarnia t'ori kontajižosoa san?

· Sarnia bai, sarnia oso txarra. Sarnia, sarnia dekon erropia ukutuixu. Endemas, ixerdiže badeko, beorrek eta nik sarnia da nire erropiari ikutu, seguru pegetia. Sarnia kontajiosoa da, sarnia be.

– Da olan, bestela esta egongo estamangukoa edo?

· Estamangukoa ta es dot uste estamangukoa pegeu leiženik, kontajiosoa ixen lei-kittenik.

– Da, orreri geixo batek bestia..., bat geixo egon, ni esatebateako, da suk geixo ori artzia nigandik, ori selan esaten deutesue?

· Geixoa? Guk esatotzu: orrek geixoa deko. Berbetan euskeraz batzuk esaten dere: pegeu. Beste batzuk kontajiosoa. Baia euskeras, pegeu guk.

75. – Da olan, peregrinasiñoak edo promesak eitten die elixara geixoak es arrapetakoa edo kuretako?

· Ori bai. Ori lenau, lenau ori korrientia, korrientia san. Esatebateako, nik esetute dekot geixoa ta nik igual eitten neuen, oño! osatutiarren aitte San Antoniñoi mesa bat, e? Osaten nitzenien gero a obligasiño kumplidu embida. Orreri, lenauko sarrak iñyer aundiže

emoteutzien. Geur es. Geur e, bagoas, atzantza goas danok, erlejiñoan atzantza.

Da beste geuse bat, geixoak e, geixoak siñestu embideu osatuko dana, bestela badeko buruen sartute, enok osatuko, enok osatuko, ak eurrerapide gitxi eingo deu. Geixoak pentzeu bideu beti: bai, ni osatuko nas. D'an-txe firme, d'aixe da borondatia, d'aixe siñesmena da mesede aundiže eittotzena geixoari osatzeko.

– Da, orrek peregrinasiñoak eta nora eitten sien emendik Sorrontzatik, esatebateako?

· Emen, nik au promesa en jeneralien, Urkižolara, Urkižolara, baitte Karmengo Amari be bai. Karmengo Amari neu be eskatute nau osasune da mesia da gero žoateko modue da sertzen danien aimbet aiñen kumplidu.

76. – Geixo batzuk osatzeko olan, bendesiñoak edo seoser eiñ edo?

· Ori, umiak lenau eittotzien begiskoa esaten žakon. Onek danak die atzoen serak, bai begiskoa.

Da oten sien, monjak eitteuriansan esaten žakon, kutunek, kutune. A, ipintteutzien umiari. D'ori begisko ori, osatzeko eitteurien —oiñ elixetan be gitxiau— ta ur berinketue ote san etxien. Ur bereinketueri anille, anill pixkat bota da an eittotzien umetxueri.

– Edateko?

· Edateko, edateko, baia anill gitxigas, ur pixkat da a emototzien da ba biskortu. D'esateurien ba kutunek, promesa eitteurien kutunas, edo mesa bat edo amak, amak eittuen promesa. Da gero, laguntzeutzen ur bereinketue d'anill apur betas.

– Da, begiskoa ser san ba ori?

· Begiskoa esateurien orixe ba gasgiñek esaten žako, begiskoa, igual andra batek ume eder bat deko, ba ama batek da begire, ta begire, ta begire on ta tak! sartzen žako umiori geixote txarra.

– Da, beste olan, bendesiñorik edo olako eser geixoak osatzeko iños?

· Bai, emen e serien, amen Sa Migelen or Foruko komentue, or pase bixeuon, on bixeuon amasapi urteko mutil bet, oso txarto geixorik. Da, eitteižesan, Oixera erregatibe moduen abadia edo fraillia artu d'erregatibe moduen errosaižoa erreseu da modu askotara dedi-keteisien lenau orretan geixoak sertzeko.

Oiñ, orrek danok dekus, estutzu federik emoten; orrek geusek...; se lenauko moduen

atzoak orretan dediketan sien, bai txarto eitten, da bai ondo eitten. Lenau bai, orretan bai. Baia, oiñgo atzoak besteik esteukie, kartia da eurrera.

77.- Da gero, olan geixoak paseu leittikes esatebaterako, suk esan dosune or, andra batek begittu, begittu umiari intenziñoas?

· Bai, bai, bai. Aixé txarto eitteko intenziñoa.

– Personari geixoa inkeu lei olan?

· Alan esateurien.

– Aberiari edo pistizeri be bai?

· Pistizeri, esaten derie, ondiño personari baiño ariñau eittotziela, esaten derie.

– D'arbolari tte?

· Arbolari estaitt pa, ortxe, ortxe estaitt pa.

– Da ori pistizeri intenziñoas?

· Intenziñoas batera serten die, pegeu. Intenziñoas batera.

78.- Da olan, geixo batzuk osatzen die lurrien soser, enterreute edo? Entzun dosu iños geixo bat osatzeko?

· Estot oixe sertu, entzun sekule be. Estol entzun es. «Unicamente» au, tripetako miñek aundižekas, ari'artien enterretan bai. Ari'artien.

– Ser, enterretan?

· Esatebateako, nik dekoas tripetako miñek aundižek, esta? D'esiñ erresistiu da ari'artien eiñ suloa da tripia tapeu. Da, ona ei de oixe. Oixe bai ona ei de tripetako miñentzat.

79.- Da olan, geixoen bat garbittasunekas edo uras kure lei? Entzun dosu iños?

· Geixoak, geixoak taus esatebateako, estamangue loi dekon geixoa badau, arek garbittasune bideu bai barrutik, bai estamanguti tte bai kampoti. Bai, baia basia estamangue. Estamangue garbi euki bida. D'ori, estamangue garbitzeko nik atzo esan neutzena giñerrondokoak, a da ona. Estau alakorik, mantzanilla t'orrek danok baiño obia da giñerrondokoa.

– D'ori selan, giñerrondokoa egosi?

· Egosi tt'aixen ure artu. D'ori giñerrondokoa artu embida, —ori neu be artute nau—, artu bida orrek ur basuok iru egunien segi-

duen, artu bida, iru egunien segiduen. Da jan gitxi, e? A, artzen dan serien jan gitxi. De goixien bareurik, bareurik. Da, a artu da ordu erdi paseu inguru arte es arroseu, gero bai, gero jan leike.

– Da olan, barruko garbittasune eitteko ser, labatibak edo?

· A, lenauko sera, labatibia san. Lenau, leleko labatibia. Andik aurrera barris geur be, tifuse etorri balitz, ori be estietako geixoa, da estiak garbitzeko labatibia artu embiko lekittike igual, e? Igual bestiena baiño labatibiena diretoau da, ariñau.

– Da, ori selan ure san ala seoser ureri botata?

· Es, labatibiari ure, ur epela, ur epela. Da, askok batzuk eitturien mamukižoa ur apur bet nastetotzien labatibiari. Mamukižoa.

– D'ori, mamukižoa, non egoten da?

· Ementxe, leku askotan oten da, ementxe Munitzeko soloetan be tope lei ontxe be. Bueno, oiñ, orriže akaso žeusitte euko deu baia ori leku askotan dau mamukižoa. Erresa da topetan ori. Jesus!

80.- Olan, geixo batzuentzat seoser igurtzi-ttia edo?

· Ombre! Ombre! Ba, neuk tiñotzut. Lenau geixoa sentitan sanien, binagrias emoteurien bañue esaten žakon, lanasko medi betas igurdi da gero, sea, gorputze gorri-gorri eitten sanien binagrias erre, da asko. Da, ori useriže ointzurartekoa ixen da. Da gero, onena ori baiño obia topetot nik, neuetzako —se neupe sarri ipiñiot-eta— asunek.

– Bai, ori entzunde dekot, da selan asunek?

· Asunek ba, garorik espadekie, batu tte ra! bota gorputzien da euren ganien etxun. Lelekotan pikeu eingotzu, baia gero artzoso gustue. Kalambria selan oten dan, alantxik odola ibillten da. Baia orrek, operasiñoa ariñen eitten deuen operasiñoa orixe da. Asune, asune geuse ederra da gorputze saintzeko.

– Asunen ure be?

· Ori bai. Asunen ure tentziñoentzat poena baia peligrosoa, žan embier asko. Ostien, beia jo ensegida.

– A bai, e?

· Bai, bai, bai. Da nik, tentziñoa euki neuen amasaspi tterdi. Da lenau ba, txarrižek illtten neusen nik; žoan nitzen orra txarriže illtten da ataraustien kopia d'ogi suriže ba

lenauko usaizoa ta, 'eraipa kopa bat'? Ta, es. —Ser ba? Ta tentziñoa. —Tentziñoa? Tentziñoa nik žoan dan urtietan žekoat. Tentziñoaitti žan d'eran eik. Da, au sera, Jesus!.. aixtu eiñ žat eta. Etxien dekot oiñ be egurre ba! Karraskilloa!

– Ori, ser da? Landaran bat edo?

• Bai, arbolia. Neguen be, etxien dekot.

– Da, au selan?

• Ori eitten da, sati txiki, txikižek eiñ d'egosi. Uretan edo lapikoan. Da, egosi, da an artzen deu urek kafien kolor'antza. Da, goixien bareurik a be.

Gero orrek, artzen da iru edo lau biderres, esta? Da gero, artu bideu ba, tensiñoa. Da, tensiñoa altu badeko, barriro be segidu. Baia orrek... Nik oiñ, urtietan tensiñoas nabill esato. Illien, illien artzot da amalau saspi, amalau saspi, ortxe nabill. Nire edaderako ori, tentziño ori, onena.

– Da, ori karraskilloa emen asko dau, emen inguruen?

• Bai, or beko errekonduan dau arbolatxu bet da nik ekarritte dekot oiñ be. Ekarritte oiñ es. Geroau da sikuagoa da ta oiñ bost, sei urte ekarritte dekot ortxe. Da, askori emototzet. Askori. Ba, olan emototzet ba, troso bat eba serrotes da laurendute egosi auxe, satitxuek eiñye, egosi.

– D'orduen ori, senbat eta sarrau obiau?

• Sembat eta sikuau, obiau, obiau, bai.

– Da olan, beste seusegas igurtzitte edo? Beste bedarren bat edo esara akordetan? Pulmoni bedarra edo?

• Pulmoni bedarrak, pulmoni bedarra bai, baia pulmoni bedarra eran eitten da, eran eitten da, eran. Pulmoni bedarrak oiñ be gurien be ongo die gitxi, asko batute. Nik ikusten doanien olan e, soloan edo olan nabillien da, amen bedar au, esetotena. Artu t'etxera ekartot. Da gero, orrek kureu bidie geixpetan e? Euskitten iñyerra kentzen žako asko, geixpetan kure bidie orrek.

– Geispetan, da ser, siketu eitten dosus? Edo ser?

• Bai, bai siketu. Geispetan kure deittesala. Da gure bada, siketu orduko txikittu, fasillau eitteko sertu. Gurien be, batzuk eitten deres beste batzuk es.

Da, beste bat dau odola garbitzeko esaten žakona ba, asagari bustena. A be ederra! A, osasune dauenien be lantzien miñ artuko balitz odola garbitzen da-ta.

– Da, ori selan?

• Ori be egosi tte ure. Egosi tte ure. Onek, ganeti, asaleti eitteko kurek paiño, geizenak tie onek egositte sertzekoak. Gero, daus beste batzuk, esatebateako, ori atzo arrutzi esan geiñune be, ori be.

– Tortillia?

• Bai. Ipiñi tte orrek tie asaleko, sertzen dienak. Katarroa t'anjiñe: esaten deendik onenak.

– Da gero, olan geixoak kuretako? Olan. arbola baten aspitti pasetia edo olan, arbolia apurtu eta bittarteti pasetia, iños estosu entzun?

• Ori sera, ori nik akordu asko es, baia nire demporan ementxe San Juan bekoan eiñye dau ba. Baia anaizek ixen bidere.

– Da, selan da ori?

• Ori, ori... pentzetot, estait pa, se geixo dan ernientzat, ernientzat pe lenau ori eitterien. Eitte dere, aretxa astilletu, astillia ba, lagune pastako moduen astilletu. Da gero, andi bata bestiari emon baia estaitt seose berbak, orrižek esin yoas, neure dempoa gustižen, orrižen, sera, eukiot. Da esiñ ixen dot aber se esaten deren. Beintzet edoselan be, ba amairu biderres pasetan derela esateurien. Amairu biderres. Onek, ba, sera, ba oiñ be au Gorritxu «karniserue», orrixen aitte ta sien pase'euriena. Orrixek sien saspi anaize edo. D'orrixek pase'eurien. Ori, ori nik estaitt euko baneusen bos edo sei urte ori eiuriela. Da or, oiñ be markak eukiko deres aetxak.

– Gero, aretxa ser eitten dabe, barriro lotu?

• Es, gero kuñia sartzen žako a astilletute ta a kuñia atara ta estutu eitten da. Beres, beres, sarratzen da. Besteik esebes, aixe kuñia atara. Esatebateako, ba arbola bat mendetako asaleti eitten da oiñ, esta? Baia len astilletu eitten san. A, mentue sartu te ba sabaltzen sien, untzia ataa eitte san. B'igual, igual eitten da ori, bestiari be. Kuñia atara ta beres estutu.

– Aretxa, ixen bideu orduan?

• Aretxa. Besterik es. Aretxa.

– Da, andiže edo txikiže edo senbat urtekoa?

• Es, orrek esteko. Baia edoselan be, lagune pastako bestien sabaltzeko bastante lo-dižek ixen bier.

81. – Beste geixoen batzuk kuretako seoser bota edo eitten da?

· Ba, orrek nik orreri fede gitxi ser gitxi emototziet, se orrek geizen baten sorginkeižek, sorginkeižek.

– Suk, entzunde dekosu, iños olako seoser eitten san edo?

· Ombre! Nik entzunde dekot, ipiñi bide kurtzen egurre, egurre, da artu atzoak kutxilloa da iru tiradatan, baten sartze'espadeu geixoa esala kuretari da. Baia nik ori, neuk estot siñestu eitten.

– Da ori se geixotarako?

· Ori, ba ortxe, ortxe, ba ortxe, medikuek igerri es ser dekon da sorgiñek inkeu ortxe, ortxe, atzoak inkeu geixoa. Oixe, oixe ixen bideu derigor; ortxe, ortxe dau.

– Da olan, usteltzen seoser itxi geixo bat edo garižek edo seoser kuretako ta ori?

· A! A! Orretan neu nas usaba.

– A, bai?

· Nik gari asko kuretari. Onek errekarako singerako sirižek, sirižek konteu; Gloriže erreseu bida aldrebes, aldrebes, atzeta asi d'aurreti akabeu. Da, siriže kontetan da gariže, esta? Siriže artzen da ra! punte bižetati. Gari bakotxak, siriže bat, e? Sei gari badekos, sei siri sarižek ebaitte igual, igual ebaitte. Da gero, danak konteu orduen, danak kontet'espadies estau kurerik, konteu danak embidie. Da gero, sirižek danak batera, gari bakotxien gari bateri kurtzia punteti, punte bižetati da gero, erdižas. Da gero, arek sirižek enterreu garižek dekosanak estakižela, estakižen lekuen. Da, enterreu, ba usteltzeko lekuen. Garižek dekosanak, esteu žakin bier non ente-reute dausen. Esteu jakin bier, es, es, es.

– Da, beste geixoen batentzat edo olako seoser eitten da?

· Nik, besterik, nik besterik estakitt. Ni neuk, dakiasenak die: gariže da santietue. T'onek.

– Santietue, ser, sertako da?

· Santietue da, beorrek eitten deu bižorkada bat, da antxe orižo apurtxu bet artu da kurtzetara igurdi: 'santietu, sana sartu, sana bee lekuen sartu, santietu, sanurrutu, sana bere lekuen sartu'. Da, paternosterra erreseu da nik orrek santietue da garižek konteu asko eiñoas neure dempoan asko, asko.

– Da gero, ori seoser lotute ixten dosu bižorra, ala itxi?

· Lotu. Ibilltte'espada, lotu es da be bardiñ ye. Ostien, ibilltteko ankan edo badekosu, lotu apur bet, e! asko es, apur bet.

– Da ori, lotu segas?

· Bendias, benda batas, benda batas.

– Da beste olan, orren antzekorik, seoser gorde edo gordetako edo geixoak kuretako iños?

· Es, es, es. Orretan bai, sirižekas. Sirižekas, estaitt kendu bažakon, estaitt paseu bažakon, ondiño, dempora lar esteko, ondiño. Ortxe kodaiñe piketan ibilli d'etorri žaten ama t'alabia, baia alabiak eukesan eskuen. Baia eiñoas nik iños itzelak, itzelak, eiñoas garižek kuretari. Etorri žaten. Ei'neuen gixon batas posture d'ein neuen ba se; aber, Jainkoen kastigue bažekoat, kureu es, kureu es. Da, ei'neuen ba se, oiñarteiño be danak kure doas, esate'neutzen nik andriari: suk, gariže bekosu nonon. Nik, estotzuas suri garižek danak konteu.

Bai, nik estekot gari geižau. Da, ak, eseuen jakin nik gixonas afarixe posture eiñye dekoanik. Da, gixonak esa'usten: !! Ser? Da, afaldu embižuk.

Es. Enažoak afaririk pagetan. Sorduet baia ondiño enažoak pagetan. Esažok andriari egiže esan deižela, Jangoikoa dauen mouen, badeko espadeko gariže, se nik ondiño kureu barik etxotxiat itxi iñori-tte. «Efetivamente», gariže euki uen. A, erakusten niri gariže non eken lotza, d'esanotzen berari: su, nik embria ser dan bakitt, da niri asko sufridu eistesu, te estosu meesidu kontetaik oiñ, garižek. Se, ni on nas posture eiñoalako, aber, Jainkoen kastigue badekot.

Ba, mesedes, kontau eixtesus. Konteu notzesan, d'efetivamente, baia, eseuen meesidu ixen. Se, nik esa'notzen, gero gariže badekosu, nik konteu embitzuas danak, ostien, etxatzus kuretari. Da, estekola berak.

82. – Da gero olan, esatebaterako, geixo bat kuretako iños entzun dosu, ba besoan euki geixoa, kasu beterako, besoari neurriže artu, neurritute da olan, kuretari danik?

· Baia ori, balekitte?

– Estaitt. Emen pregunteu eitten deu. Igual nonon...

· Nik entzun dot, oiñ e, nire buruek iže memoriže... Len žaki'neuen ixen da gusti. Bedarrak artu, esatebateako, besoan deko edo ser sera, edo lusetu esiñe edo a edo sera

ta bedarra artu da die iru bedar klase da artu. arekas igurtzi eiñ serak; arek bedarrak selan siketues, kureues žoaten dala. Da, orrek, ongo gastiak estakiže baia orrek gure leke bixi geur egunien, orrek, orrek. Se, nik takitt ondo, ondo, amentxe paseu dana, onexas. Amerikanu bet dau ona etorritte andrien sera, da orrek indisiñoak artzeittu edo bižotzeti len opeasiñoa eiñye indisiñoak artute ibilli da, klaro! Aseguroko indisiñoak es, da gixona txarto, txarto. Ta, žoan, d'esan medikueri: ekasus indisiñoak niri, toketan dan modokuak, partikular pageukoas-da. Artu indisiñoak da gixona ondo.

Geur, erremedižo bedarrak žakin eskero ser dien, geurko botikek baiño satiže die oba. Se, geur botike sea dabill asko. Artifisiala, artifisiala, se gixonak ostantxien, orrek geixo bat teko, ta botike onas kureu te bestias igerri es eitteko. Or dau, ortxe dau demostrasioa, selako botikia dabillen.

Aseguroko botikias geur esilei konteu, e? Aseguroko botikias, esilei konteu. Da, nik geur be esatotziet etxien, umiak estamanguti siku dabixenien, es emon prugerik (sic); žateko gania kentzen deu purgiak eta es emon. Neuk preparekotzuedas se emon bitzesun umiari. Da, estaitt, gurien umiak siku badaus estamangutik ensegida doa sera, kaka bedarra edo inyerra bedarra (sic) edo seren batas, ala! Ensegida etxeko seas, estamangue garbittu umiari.

- Da, orrekas, bedarrakas se eitten dosu? Egosí tte ure edan?

· Ure, bai. Egosí tt'ure edan.

- Da ori, estamangue siku dauenien senbat bider? Baten, goixien edo bareus edo selan?

· Segun, bareus, segun. Igual, baten artute libreuten sara ondo. Da, espasaa libretan, b'urrungo goixien. Segun ori, Jose Mari, selan libretan dan.

**83.**- Da gero, batzutan olan, aldien edo jantzitte olan kutunen moduen, beste geuse batzuk edo seoser geixoetatik libretako edo osatzeko?

· Nik, ara. Nik, orrekas, kutunas be ixeltzen nas, se geuse ona da. Ni, neuretzako, aldien ibilltteko esango dere, ori lelotute dau. Nietzako, bai osasunerako da bai serako, eskuplarižoak. Karmengo Amen eskuplarižoak nire paparren esteittesela falteu. Ni, esango dere, ori leloa'ok. Ni, gerra dempoan salbeu neusena, aixe da. Nik, sea Teruelen da Kris-

tolako atakietan ibillitte, Larrako kampaik belarrižetan eukitte'neusen, d'eskuplarižoak emen (paparrean). Gerran, atake gogorretan ibillitte nau baia illtterik pentzeu bes. Sekule, illtteik estot pentzeu, beti eskuplarižoakas fižeu. Da, askok esango deu, au lelotute žauk.

Bai, kutune da bai, bai, bai.

- O sea ke kutune. Eta ortik kampa es tosu...?

· Bai, baia beorrek gaur pregunte deu a ber kutune non ipinteutzien umiei. Oiñ oingo umiak estaroarie paixia, paixia esaten žako ba gerrižen batzotziena, gerriko moukoa, antxe, kolokeutotzien, paixien bigarren bueltan edo... lenau umiari trapue eta gero paixias batu eitturien. A, oiñ, oiñ ser dan be estakiže oingo embrak.

- Paixia ala paixkia?

· Paixia, paixkia, bai, paixkia, bai.

- Ta olan batzeben umia?

· Olan umia sei edo saspí buelta bai; leleko trapu fin bet barrutik ta gero a, da gero mantarra, da gero ori. Da antxe batzeutzien. Ori ikusitte dekot batzen.

- Andraskoak eta... eseben eroaten olan kaniketxu baten antzekoa bularreko gaixoak edo es arrapetako?

· A bai, ori begiskoa eiñesteižen be bai. A bai, se erdittik sulotxue.

Erdittik eukitteuen orrek, kanike orrek, ta ba umiak pe askok eroateren ori, andraskok barris bularrak umiari, bulerrien eroateurien bagiskoa eiñesteižoen, ta ori, geiženak eroateren ori. Ombre!

- Ori kanika ori selangoa zan?

· Ori kristelen modukoa, kristelen modukoa san ori. Kristel modukoa es, kristela, kristela.

- Ta saldu eitteben ala nondik artu?

· Es orixe, a estaitt pa non. Grego?

· Ser?

· Ori sera eimbier da emen. Ori sera paparren eroaten seriena, eroateriena andrak, kanike moduen begiskoa eiñesteižoen bulerra emotorduen umiai-tte.

· Kutune.

· Kutune telia san. Baia sera kristaleskoa eroateurien ba. Kristeleskoa be baegoan. Nik akordeu es, ixena estakitt se.

· Neuk pes, eroateuriena baiño: da esateurrean embrak ba umiari bulerra emote orduen, bulerretara begiskoa eiñesteižoen.



– Bai, bai.

· Orrena es sara akordetan? Ori kanikiori. Bueno ondo dau. Estakit-pa ser dan. Ixen ori estaipa ser dan.

– Beste seoser olan eroaten san ortik kam-pora? Kutune, eskuplariñoa, ta kanike au ta beste seoser?

· Besteik estot e, estot entzun, baia orrek irurok bai: kutune, paixien batzotzien, esku-plaiñoak ta ori kanikioti bai, ori kanika ori eroaterureina fijo nau. D'esateurien orrexeaittik eroateuriela, begiskoa eñestežuen edo olan.

· Gregoria: Bieskutune edo olakoen bat ixena eukela ugaskutune edo olako seoser?

· Es, bieskutune edo olako seoser e, fijo estakitt ser san.

**84.** – Da gero olan... geixo batzuk kuretako olan egun aparteko batzuk egoten sien ala edosein egunetan kureta san. Esatebaterako iretargiñas edo olan?

· A, ietargižen gora berak be bai; eoten san ba olako ori iretargižen gora beran e, kambiñoa itzela ote san e, kambiñoa osatzeko nik estaitt pa ixengo san.

– Edo olako...

· Bai illien gora, ba illen serien, il bera sanien, apurtxu bet igual otesien mejorižen da gero ilgorantza doanien otesan txartxuau, esta?

– Ta ori gaixo gustižekas ala batzukaz bakkarik?

· Batzukaz, batzukaz. Txarto otesanien ixetesan ori. En jeneral eitteban mejoriže goixien ta, gero geuberantza atzera bajatu, eitte san, bai.

– Ta olan beste egunik esarie akordetan; esate baterako ba... estaitt nik... negukoak edo ude partekoak edo... olako egun batzuk kuretako obiauak.

· Kuretako onena segun, segun. Beittu; onek ilbarrižek da ilberak da orrek die erreumiena, beste geixo bat esaten žakona umuria, asurretako unen geixoa.

– A bai, e... ori selan da, bai?

· Umuria, umuria esaten žako; orrek dekie itargiñas, ta ilbarriñas da diferentzi aundižek, bai, bai. Illbarrižen beti. Illbarrižen deko personiak odola bixižen. Itargiñas gorputze badabil da ortxe dao ilbixiže esaten žako da oi da unuria, unuria, ba uneko geixoa, da

orrek deuko diferentzi aundiže demporan, itargiñas, demporalien gora beran.

– Ta unuria ori, selan ixeten da, makaldu-te edo zelan?

· Bai, bai, bai, asurretako geixoa. Asurretako, barruen, barruen, une, une, une deuko antxe, uneko geusia unuria da, asurretakoa. Geixoa barrukoa. Ori neutekot. Neutekot ori gerrižen. Neutekot ori gerrižen. Daatti ibilltenas neube demporien kambiñoa beti txarto. Ako dempor'onak on, ta demporia kambižetan danien, derrepente, euriže edo seose mogidu arte txarto ibilltenas, miñ asko. Da ori de unuria. Orrexek dakar au.

– Da ori geixo ori selan, selan etorten da edo... ta.

· Ori, ori geixo ori...

– O sea kampotik pegeute ala...

· Es, es, es. Ori enjeneralien geixoak danak agertzen žakus gorputze txarto tratetias. Geixoa jeneralien arrapetan du ortxe, ibilli igual ixerditten e, da gero gorputzeri kasuripes... ixerditten. Ni neuri ba einžatenin gorputzien, nobedaderik txarrena (neure demporan einžatena) da, gari joten ibilli, žoan presara aiñeketan, da golpien, ixerditten sartu. Ni orduntxi garbittu enitzenien posik onitzen. Orrek gero datos, demporias orrek agertu eitten die, d'olako asko gulakoak eitten deu. Su, gastiak geuse txarrik esteu pentzetan.

**85.** – Ta gero se geixotarako da ona ixerdiže botatia, ta selan ixerdiže botateko? Ser eitten da?

· Ixerdiže botatia pulmunientzako bai Geixo gustižek ixerdiže botaten danien, odola, beti desgastie deko odolak berak, da ortxe geixoik dauenak odola gero ta makalau sertu, obe dau. Da sanen bittartes osatzen asten danien, alimenttu, alimenttuen bittartes apurke, apurke, apurke, apurke žoan bideu serten, ostantzien, ombre! Estau geuse txarraurik ixerdiže bot'es da sertzen bosu medixiñien sea, eimbiosu dana, botikien serien eimbisu dana, gorputze sertu bisu. Ixerdiže gexoak gero kontu aundiže eukieskero, mantien podasus baiño espada, botako deu. Nik euki'oas emen saspi sortzi manta. Antxe, apur bet aber sertzen bada.

– Ta ixerdiže botateko olan lurrune edo ta mantapera gero sartu ta olakorik ez da...?

· Baina ori geixorik dauenien peligrosoa, bai. Ori esatebaterako katarro batas be bai

artu sinke, katarro batas, artu sinke, da lodizentzat pe ori apur bet argaltzeko ona da, baia geixoantzat ori, an lurrunek artu ta gero otzittuko balitz, ser? Ayena! orren ostia ondo ikusi bida gero. Nik ori peligroso topetot.

– Da ori sistema bakarra, o sea, bide bakarra izerdize botateko, oixe, tapeu, asko tapeu?

· Asko tapeu, asko tapeu. Nik orras e, be-roas baño guraut. Tapien podasos artu ixerdiže, se beruek umedadia deko. Da oiñ, bueno, oiñ amen geurien dau sera, geurien artuko deu, gure badeu, ba ixerditteko, botako deu ixerdiže beorrek gure deuen beste.

– A bai?

· Bai.

– Segas ori?

· Ba ipintten da lapikoan ure berotuten, irikitten. Botaten die ara, onek serak, okalittuek. Or dau bañeran ipinitte, da botatosu olako platillo aundi bet, sartzosu an lapikoan irikitten, estufia deko barruen lapikoa irekitten on deitten egitten, žesarten da da, pareko da amar minitu barru, uretan ombre! Baia ori, osasun ona bide orrek artzeko. Je! Aimbete ixerdi botata gero ser? Osasun ona ta ganera appetittoa be bai. Koipiak bejatuko'ittu bai!

– Ixerdiže ser ixengo leittike? Alako odol suriže les edo olako seoser?

· Ixerdiže, ixerdiže da okelien alimintue, ixerdiže. Ixerdižek, ixerdižek bajatu eitten deu personia, bajatu; ixerdiže ta gero odolera. Okelia, ba odola, odola, da, ombre!

**86.** · Igurtzen dana, lenauko igurtzeko botikamentue san binagria ta alkola. Lenengo igurdi ondo. Gero ganiien esan eser ipintten. Es esplantue (sic) ipiñi eskero esteu bier ixeten, es, es, es; ak berak tapeuko deu. Ak tiretu eitten deu. Neu be ipiñitte nau-e. Ak tiretu eitten deu. Emplastue, esaten da, emplastua. Liñesiže ta mostasia, saiže ta urune.

**87.** – Ta olan kalenturia, kalenturia segattik etorten da?

· Ayena! Kalenturia, kalenturia seatti etorten dan? Kalenturia seatti etorriko da ba? Kalenturia gorputzen ondo esa. Kalenturia dauenien e, gorputze geixorik, estau ondo, gorputze dau kalenturias. Nik ongo geixoan, daniien be seguramente kalenture aundi barik, bejatuko neuen nik kalenturia. Personiak lelengo lelengo ein bideuena geixoa sentitzen deuenien, kalenturia bejatzeko...

**88.** – Da gero, selango kalenturek egoten die, o sea ke, kalenture klasiak egongo die es?

· Ba, ba, bai, kalenturia segun. Beittu. Segun selako klasia, alakoxe klasia deko kalenturiak. Kalenturerik txarrena ixen bideu tifusena. Tifusien amasaspitterdi, amasortzira apenas aillegetan dan iñor, tifusen kalenturia. Iže kasi normala da ba e? Es da ba kalenturia andiže. Da apenas aillegetan dan iñor. Asi eske ori geixo lusia dan les estieta-ko geixoa, espasara ariñ akordetan aaitti de, berrogei egun sertzen deu orrek. Ortxe dau ba, ortxe euki bida kontue. Beti personiak, berak kankuleu bideu. Esatebaterako ba, nik gana txarra dekot esta? A ber se bier eiñyoan, o se ixerdi ataa doan, non ixerdiže atara doan t'ortxe.

– Ta beste kalenturek e? bestiak esatebaterako...

· Ba bestiak beittu; nik ontxe sei illebeta eukineuen katarroa; katarroa, enuen besterik sentitan, baiño katarro, astun bat batetik, da esan: enas ondo enkontretan da ser da au. Esausten ba se: Euki kontue, suk katarroa, gogorra arrapetosu. Ipiñi tte amasortzi tterdi, kalenturia, da kasi gorputzien aixe bakarrik, da eineuen ba, ta normala. Benga esanotzen: eixu saldia, tasa aundi bet bete mantzanilles, da aber ba estamangue edo, bestia ta, oño' nobedaderik pes, baia maretu oño! Eineuen ba se: Bažatok. Nik beti geixoari billurre ta mareatu. Ta esan gendun: bueno, medikuana žoan bida. —Ixilik on saitte. Ta, bai, bai enau ondo se, au kalenturieu esta normala, estot topetan normala. Da bueno, žoan, sortzi egun lenau etxien artute sea, tensiñoa da, žoan medikuana da amasaspi tterdi. Medikuek arpegire beittu; aber segaittik žoan nitzen berana. Abixeu eusten etxea etorteko sala. Bueno ondo dau orduen. Ta erreseteu osten ekarteko beste botike pillo bat. Esan notzen, alabiari: botaixus orra beko errekarra orrek botike danok. Nik orrek arten bažoasat trageute nažaun. Bueno etorri etxera, da eixu karraskilloa. Karraskilloa eiñ, bota kollara bete arkol (alkol), artu ta ogera. Ure, bota ure! Ixerditten pareuko siñien. Ak arkolak... Arkola aaittik bota notzen! Esanotzen: nire mudia berotu t'ekarrixue. Mudeu nitzen. Nire kalenturek eskapeute. Arek botikek artzen boas... Baia, baia, baia siñistu esiñ lei an sembat botike kajan, saspi, sortzi botike klase. Da berak espliketan: ba au tensiñoen sera, kalenturia. Da bižeri kontajižoa; estaitt

ser esaten. Ba! lelengo indisiñoak. Nik indisiñua artu baño gura barris il be. Astokote! ja, ja, ja!

– Orduen kalenturientzat ser ona dan esan dosu, o sea ke karraskilloa.

· Da berotu, ixerdiže bota, aimbet ariñen, da berotu. Ba nik sekule nik koparik erate'stoala urtiak tie. Da nik gripe eitten doanien, karraskilloak berak pe berotzen deuen les, normala kollara neurriže bete, ogera sartu, ta benga tapia.

– Koñak botaten deutesu ala?

· Es, es, es. Arkola (alkola) nik bota neutzen, arkola.

– Alkola ori kuretakoa?

· Bai, bai, bai, bai, arkola kollara bete e Basu bete orreri, kollara bete ure! Ako, gero igertzen danien, noberak, beno, mudeu; oge ta gusti e, ondo. Es otzittu, es otzittu.

**89.**– Ta ser dau kalenturia bejatzeko?

· Kalenturia bejatzeko edoseiñ kalenture bejatzeko orrek serak, len esaten ibili garienak be bai. Karraskilloenak pebai, dana; orrek erremedižo askotarako baližo deu, kalenturia bejatzeko. Ta tensiñoa bejatzan deuenak kalenturia be bai.

– O sea ke seaittik etorten dan, ba oixe gorputze txarto dauelako?

· Ba, ba, ba, bai, gorputze tratetan estakiguleko; personiak gureleke, bier einye be jan ostien, eunkesia iru ordu leuren edo ordutxubete žesarritte baño espada be, egon. Etxunde oba, egon, da lo eiñ barik be oba. Egon.

**90.**– Gero selako erremedižoak egoten die ba estulentzat eta samako geixoentzat eta olan?

· A, sera, samako pikorra ta olakoa, orri-xek. Estule be orrixek. Anjiñek be, da gero okelan ipiñtten badeu, trapu barik ipiñtten badeu okelien kontrara, ipinttotzu gorri, gorri..., da oneri ume gastiaritte, ni neuk ipiñi doanetan aragižen kontran ipiñi'ot. Da ume gastiarri erre eittotze, da arei trapu me, me, me baten ganien ipiñi bižakie. Ori gure neskatotxuori ba anjiñekas on san; paseutzen, da ogeta lau orduen, fuera Operasiñorik barik. Da olako gastetxueri, txaputxuas ipiñi bižako, trapu me, me, meias.

– Ta tortilla esan zendun suringoas...?

· Suringoas bakar bakarrik.

– Da gero bedarra, sein bedar edo...?

· Orrixek, orixe; oiñ be niri ixena aistužat. Atzo be'san geiñun ba; olango bat.

Es, giñer ondoa estamangokoa, ori bestiori. Ori, lora sertxu bet eukitten deu da ori, e... nire burue... Or ipiñitte deko. Atzo esan geiñun.

**91.**– Ta gero tosferina suk entzun dosu iños? Da ori se, segas kuretan da selan esaten deutasue?

· Tosferiñia, ori tosferiñia, bueno, onek tosferiñia. Onek gure umiok, onek koižeu te emo'tziesan makiñebat indisiño; indisiñoagas kureu sien orrek. Jesus, Jesus!

– Sure lobatxuek.

· Alabak, semelabak, gastiak sienien, buf... Bai ori geixo lusia da gero. Da orrentzat pe da ona arrautzia egosi, sera arrautzia kaskara ta gusti egosi. Da kaskaria biguntzen danien, kaskaria bakarrik, uras emon, kaskaria eutz eitten da. Bota, seose botaten žako, estaitt se botateutzien. Arrutzien kaskaria solteta-ko pentzot gatza ureri botatotziela. Da axe kaskaria gero uras. Erremedižo ona, oixe bai, tosfeñientzat.

– Da besterik, beste erremedižorik entzun dosu tosferiñientzat?

· Estot entzun, se gurien oixe bakarrik dekot. Da laranja, laranja da limoian artien pentzetot biguntzen derela arrutziori e. A! gero emon arrutziori seras, kaskarias, aixe emon edateko.

– Osea laranja satiže ta...

· Laranjien ure ta limoien ure.

– Irikitteko edo berotzeko edo...

· Sea, berotzeko arrutzien sera. Da gero aixe, arrautze'sala da aixe ona e? ona...

– Berak eiñyeuen uregas?

· Bai berak einyeuen uras.

**92.**– Da gero olan e ori selan esaten žako, tuberkulosis len esaten žakon.

· Ai, tuberkulosiže. Est'ixengo bulerretik?

– Oixe, bai. Sera esate baterako. Or suk esagutukosu, ba Dertiako anai bižek, arek. Dorotiñ da?

· Bai esautuko eneusen ba? Dorotiñ, Doo-tiñ nigas bier einye dau.

– Arek euki eben ori anai bižek.

· Bai, bai. Ta emen serien be bai. Au, ori be ba suk eseiñun esautu baya, G. S. Ortze

Ategorrin bixi sen ba. Onek B. S., J. S. ta...  
Orren anaize bi tt'arriba bape olantxi il sien.

Bai, bai, bai. Lenau ori geixoa eukena...  
Dorotiñ de, ontzukoak die. Baia onek bestiok...  
Orren bestien demporan bulerretikoas illitia  
seguru sen, lentxoau edo gerotxoau.

- Da ori selan, segaittik etorten da edo?

· Orrek pe tratu txarra enjenalien, au be  
gitxi igual (janaren seiñua egin dau), da tratu  
txarra, tratu txarra. A Dootiñ, Dootiñ e... Ni  
ikaratu nitzen a bulerretik dauela entzun  
neuenien. A san mutille, biergiñe! A nigas  
bier asko eiñeko mutille. Da neuk esan be,  
neuk esan be: gastiak estosue pentzetan baia,  
gorputze sainyik apur bet. A larra san: 'sainyik  
apur bet gorputze'. Da bai, beittu gero! Ni  
ebaitte geratu nitzen esaostienien a bulerreti  
dauela. A mutille! Baia ser? Ixerdiže, igon  
errekara. An kanteran ba posuek itzelak, da  
uretan, da errekeru. Gero urten orduen olan-  
txi. Orrek, orrek estie, orrek estie. Gorputze  
saintz'espada, estau seeiñik. Geixoak inyerra  
artzosku. Geixoak aldien dekus.

- Ta selako erremediozoak erabiltzen sien  
lenau orretzat?

· Eskoletan estudižetan dabixenak etorten  
žatas niri orrek preguntek eitteko. Setako ixen-  
ten deries?

### 93. - Surreko katarroa.

Tapeu burue da kokotien atzien ipiñi  
geuse beroa, edoser geuse bero ipiñi.

Da beste geuse bat be badau. Ereñotza  
da eukalittue egosi. Orriže da erramia be ona  
da. Irikitten ipiñi da lurrune artu. D'aguanteu  
al danien e? Manta bategas tapeu gorpue  
gustize da aguanteu.

Eukalittuen lurrunek artu. Eukalittuen orri-  
žek egosi da aren lurrune artu trapu betas  
edo ixara batas burue tapeute.

Katarroa kuretako esne beroa t'ortako  
serak artzen geñuzen.

### 94. - Ba olan surreko emorrajiže dauenien, ori, ser, selango botike edo ser erabilten da ortarako?

· Surreko emorrajiže, odola beres mogitan  
danien?

- Bai.

· Ori leleko, nik surreko oola beres mogi-  
tan danien, kokota busti uras, fuerte jo ko-  
kota, fuerte burue busti, busti busti eiñ.

- Ur otzas?

· Bai. Ta gora begire pareu. Orixe da le-  
lengoko sera. Beste erremedižorik es. Ta  
odola geatu eitten da ensegida. Ensegida gea-  
tzen da.

- Ya, ya, ya. Da beste bat. Au burukomiñe  
aundiže, burukomiñ aundižek dausenien?

· Igurdi fuerte bekokižen, baia ementxe,  
olan begi bižen bittartien, onetan, onetan,  
emen. (Bekoki eta surraren hasieran ipinten  
eban hatzamarra). Au gogorra, asurrek topeu  
arte, olan.

- Da or ser, igurdi?

· Bai, baia sakatu e?

- Da atzamarras bakarrik ala?

· Bai atzamarras, baia fuerte. Olan buruas  
be sakatu atzamarra. Olan bost miñittu barru  
burukomiñe baietz kendu. Beorrek eiñ eskeo  
aprobia burukomiñe dekonien ein bei, ia.

- Bai, bai, eingo dot, eingo dot.

· Nik e baten tope neuen persona bat,  
žoan olantxi personia bixittetan, da Jesus!  
Ser? Da esiuen burukomiñas aguanteu. Ka-  
ramba burukomiñe? Ba neuk kenduko neke  
gure badosu. Apur ber sertu deitten, (na-  
saiitu deitten), itxi. Da 'erdu ona' neuk  
kenduko dotzut burukomiñe bos minutu ba-  
rru. Ipiñi neuen sillen žarritte, ormien kon-  
tra burue, ostien gogor euki es, da gogor  
euki deižen. Ra, ra, ra. Bera begire moimen-  
tuas. Lau minutuas itxi notzen. Esa'notzen:  
Eraižosu olan burueri! Bekosu? Da es, es,  
es! Aur! Ikus'tosu? Jainkoak bakarrik esteus  
eitten millagroak, esa'notzen.

- Ja, ja, ja. Da burukomiñe bekokižen tra-  
pue bustitte?

· Bai, ori be, askok eitten deu, baia au  
bestieue eitten bosu, estau trapu bierrik e? Da  
gero ixten danien, kokotari ereinye, kokoteko  
sanak ta!, ta!, ta!, sarata eitten dere, olan  
einye sarata. Antza buruko sanen kurtzia, sea  
deku emen...

- Bai, bai, kurtzia edo...

· Kurtzia edo seoser badau, seoser, badau,  
ori istorižori pastako, seoser badau.

- Da ori asukeriena da erabilten da?

· Bai ori asukeriena askok eitten dere,  
baia ni neuk...

- Ser da asukeriena?

· Asukeria ipiñi surrien. Bai asukeria ipini  
cdola galasoteko. Olan masia eitten da. Ni  
neuk birritten edo iru biderres baño estot  
euki baia beti ortxe e?

– Da txorropien pareu, urpien ala...?

· Bai bardin, eskuas be bardin. Txorroa espadekosu eskuas be bardin, da jo olan. Ondo busti, ta gero, apur bet gora begire pareute, ensegida kuretari da, pastan da.

Jo kokotien fuerte e? Ondo otzittu da gora begire pareu, da ensegida...

95. – Da gero beste bat, anemia. Anemia badakixu ser dan? Anemia, odolari inyer faltia. Orrentzat ser, ser?

· Ori, orreri nik esatotzet anemiari, da-torrena debillidadetik. Inyerrik es. Sera, debillidadia. Orrek ser ba? Orrenari alimentuti pentzot orrek sertuko deuela. Nik estaipa, ostien se medikamentu biko leken orrek.

Da odola, anemia dauenien, me dau. Se debill dauen personiak odola me deko. Da orduentxi peligrari aundiže geižoetara emoteko odola, orduentxi dau. Personia debill dauenien dau, geixo gustižen peligrue ortxe deko. Edo-sein geixo artu lei, edosein artu lei.

– Da geixoak odolien bertan daus, ala gorputzien egoten dies? Selan?

· Odolien bertan es; gorputzien. Da gero odolak seiñera jotari deuen, ba aixek danak odolien bažoakos, da an daus, bai.

96. – Da odola garbitzeko se eitten da? Se odola loi oten da es?

· Ontxe esangotzut pa. Ori asagariže, ori, onenetaikoa odola garbietako, asagari bederra. Guk asagari bedarra, batzuk asagari bustena. Baia beintzet oixe, oixe.

– Da ori irikiñ?

· Bai, bai, irikiñ da goixien bareurik urba-sue bete, iru goix bidie, iru goixetan edan eskero. Da gero or artu bida kalenturia. Se odola me, loi dauenien, sera, tensiñoa igual endredeute eon leike.

Da ortxe bida kontue, tensiñoan eta kalenturen euki bida kontue.

Asunen erpiak atara atxurras da atara erpiak da garbittu da gero egositte aren ure artu. Lapiko baten egosi, ondo egosi, euren jugoa atara deižela urek. Askotxu bier badeu kuandoik kuandoa edaten ekiñ.

– Sembat egunetan?

· Norberak selan doan ikusi bier. Ide formakoak arbolan urteteuresan. Aren ure be ortarako seretako ixetesala esateuren.

Guk gastetan artzen geiñusen, 8/10 edo dosena bat urtegas artzen geiñusen.

97. – Da ori odolari loiže ori geixo bat da. Odol-lak geixoari euki, da ori ortxe. Da orrek odolari geixoak enjenealari žatekoak kalte eiñetik. Uste'sarren geuri, geuk pentzeu esarren, žatekoak... Egositte goixien asagari bustenak. Eroan, eroan.

– Eskerrik asko. Gorde seuetzat.

98. – Da gero olan estamanguo nasteute dauenien edo larrittasune edo ori, nondik etortzen da?

· Ori estamanguena be begittu eimbižako. Ori larrittasun ori, ala žan barritten ala žan sarrien dator. Enjenealari ori žan sarrien etorriko da.

– Bai.

· Aur ba! Debillidadia. Ori estamanguko sera, orrixena da, debillidadiari. Enjenealari estamanguko larrize žatorkona žan sarrien, jan da paseko žako. Da geixoari bada, es. Estamanguen geixoari bada, jan da txarrau. Ortxe biu ba ortxe medikue. Medikue lantzien miñ noberak eittia da geuse ederra. Orixe. Nik beti, nik ortxe beti kontu aundiže, nik jan sarreko sera, larrizeri sekule importantzirik estotzet emon. Jan da bueno, nik oiñ, esate bateako, beskaitteko ordue esta?

– Bai.

· Sentidu'ot larrize. Seoser koipetuik jaten baot, d'ariari kentzen bažat, asike, a da debillidadiari. Jan da segiten bust estamanguok loi, fuera žatekoari, da garbittu estamanguo. Da žan sarrien larrari badekot, debillidadiari, estamanguko debillidadiari. Jan da a larrize kendu eitten žat. Da ortxe euki biu kontue.

Bižoskilleria. Ba bižoskillerak. Ba ekarri abien andria, esta? Ta arek eiñ eban liñue ta arrautze suringo bat. Nastau arrautze suringo bat, bota koña da nastau, da ipiñi, da nastau da ipiñi. Da sertu eitte abien, prijidu antzekotxu bet emoteutzien sartenien, geuse gitxi: sartenien bueltatxuen bat edo eittetzien; geusia, ajil, ajil; ta gero ipintteutzien ba estamanguen ganien.

Da aixe eitt'otzien erremedižoari. Etorten san amabostik batien edo, ta beti oixe ipintte'ban.

Da gero beste txanda baten eittotzien, argisariže, argisariže ipiñi txakur-aundižeri pegeute, argisariže. Ixetu a argisariže, ixetu, ipiñi sillan ganien da basu bet. Basu bet ra! impintteutzien, antxe, antxe sillien ganien. Ixetute oten san argisariže (argisariže bakixu ser dan) da gero basue, ta basueri eittotzen

orrek estamanguek top! eltzotzen basuek, taup! eltzotzen. Estaitt nik argizarižaitik ala ostien, ala ser. Kustiñoa da že alantxik ipinteu. Gero a ikusitte makiñe bat bider egin neutzen ama defuntiarri; ta ari bakarrik es, emengo amari be bai.

(Bižoskilleria es lo mismo que biotz-koi-liaa o urdailleko. Ver Azkue).

Leleko eitten notzen emengo amari. Asko sufrietan eban arek. Artu olan eskue da asi kokotien da bera, olan igurdi gerriraiño, olan igurdi. Nik ba arixi ikusitte eiñ eitten neuen, eiñ, igurdi olantxi, asi kokotien da bera, gerriraiño; da gero emen gerrižen olan eurrera, gero emen eurrien olan, olan, da gero gure ixete'ban emengo amak, aixek deskantzeu eittebalata, pañelo bat.

– Bižoskilleria ser da?

• Ba estaitt pa nik; amengoxe larriže, larriže, orrek larrižek eitten deu.

Ulia miestxu au sartute be, ba asten dainen, orras burue tapekok. Esa'usten ba, se e? Oiñ, e... adelantuek žatosak, e... medikuek ulia ataaten derenak; esan'otzen: bueno, enok abeatza, ni emen bixi nasela žokatuko eut euk guroan beste, medikuek estotziela kalboari ulia sartzan, postixuas bai. Baia, bere susterrik esetz atara. Ondiño estot entzun. Entzun deu beorrek?

- Estaitt, batzuk diño seuk esaneiko bardiño, eitten dabela. Osea, susterras atara, ta...

· Ori..., medikurik esta bier, ori merikurik esta bier, ori merikurik esta bier, ori edoseiñek eingo leke, posture! Da, beorrepe igual. Ataaten deu ulia, baia susterras, e? Ataaten deu, seiñye materižen mouko sertxu bet.

Ni ulia ataata nau esta? Bueno, ori beorre'pe eileke ta, ni'pebai, ta edoseiñek. A, eiñ sulotxue, da segiduen sartu ori. Ori bai. Baia, aber!!!

**128.** - Da gero, uliak olan kiskurtzeko, rixuek ataateko ta ori..., selan eitten da, beres, ala seoser?

· Ser, e... ule errixue ta, atara? Ori, beres eitten da, garbittu ta, sarri orrastu, ta aidoso itxi. Garbittu, da sarri, orrastu de aidoso aidoso itxi. Aidoso, ueko, ueko.

- Suri, esatebaterako, orrek rixutxuek, beres urtetan dotzue?

· Beres, beres urte'tostie. Bai, garbittute.

- Da, bestela, bedarren bat edo... seoser estau?

· Es, es, es, bedarrik es, estau bedarrik. Bestela, bestela, ori geuse fasil da. Tenesak esaten žako, tenesak, da a gorittu, berotu arek t'aras batute euki, ule rixue, beorre'pe ataako deu, gure badeu, ta ni'pe bai. Oiñ, sera su... ataateko prolemarik estau.



Geuse erresa. Baia gero, a, ak esan deuenā, gero..., orrasten be žakin bida.

129. – Da, saldarrak, da olakoak be, kuretan dosus suk?

· Saldarra, saldarra kuretako, saldarrakas nik... Oiñ oixe dau. Saldarrak kuretako bakixu, ser dan onena? Akerren keupia (koipia).

– A bai e? Akerren keupia (sic) ganien ipiñitte edo?

· Bai, bai, bai, akerrren keupia. Saldarra berde eoten da esta?

– Bai.

· Da gero, eltzen doa. D'euki akerrren keupias untetan, untetan. Da, akerrren keupiak eitten deu, saldarra batu. Da, ako suritzen danien, a begiže ataaten botzesu odol bixiraiñō, an geižau esteu urtengo saldarrak. Saldarrakas, neu nau gerra demporan, Mariñ esaten žakon erri txikitxu bet dau, seetik Malztagatik Bitturiže bittartien, an trokan.

– Bai, bai.

· Ni araxe žoan nitzen saldarrakas. Gerri gustižen, oetakas saldarrak euki neusen. Baia, olakoak!!!

– A bai e?

· Otxandižon eon nitzen gerra dempoan da esausten gixon batek, gorputze mobiu bixen neuen, da esa'usten: !!, – Ser? Da, ortxe žasak ama t'alabia Mariñen, da neuk lagundukoeuet. Saldarrak, orrek, ataa imbiosak. Zoan nitzen d'esanotzien kapittanai tte, esanotzien: žoi! Zoan nitzen. Da, esausten: lau eunien bertan on bisu. Da, esanotzen gixonari (neuas etorri sen): bueno, žoan da emoixu parte; esan, pentzeu esteižen bestaldera žoan nasala edo. Gerra dempoan bakixu! Da, bueno, ondo dau. Zoan nitzen. Eniskitte barriro aren eskuen pareko ni!

– Es, e?

· Bata ganien jesarri, da bestiak atara. Baia, selakoak pasaso!

– Seure ganien pixu gustižas?

· Andria ganien, da bestiak atara. Mogidu eneitten da, lotu! Baia, atara! odol bixirarte, es itxi. Baia estot geižau saldarrak sertu (euki). Da, lau egun euki neusen keupegasias, akerrrenas, unteute, danak euki neusen. Da gero be, odol bixirarte ta a suloa keupegasias beteta, akerrren keupegasias ipiñi beteta.

Nire gorputzien geižau esta sortu. Baia, paseu! Enekitte barriro žoango!!!

– Da, atara selan ataratotzun ba? Orratzas edo?

· Es, es, es, estutute.

– Ba, miñe itzela!

· Da, odol bixiže atararte. Eurek ikust'eurien, ba orretakoa iños ikusi eseuen beorrek ikusiko. Baia, beižek eukitten dere. Oiñ, e... est'ikusten, baia len sulderrak esaten žakon; beižek kokoakas; ba saldarra da oixe.

– Bai, bai, bai.

· Deko, kokuen moduen, deko saldarrak begiže barrure. A, ataa esien, an urtengo deu.

– Bai, bai... Ixer gustižek ikusiko sendusen? Da beste anditturik, olan sea materižas edo eitten danien? Andittu ori, selan?

· Materižas eitten danien ba, sera badao esatebateako ba... andittu bet, pena andižek emototzes, esta? Ta, eitten deu au. Igurdi nai igurdi es, bardiñ yok.

D'eitten da masia, jaboia, ardau apurbet, da kimpulia. Da gero, kimpul'orriže ipintten žako atzen baten. Leleko eukitten da aras masias egun bet edo bižen.

Asten da, batzen esta? De gero, kimpul'orriže brasien ganien barrue, a mistxue kendu, barrure bota orižoa, da orižoa goritzen asten danien bigundu eitten da. Da, aixe blasta! bota ganien.

– Da euki?

· Ba, euki, urrengo goix'arte be, dauela antxe. Erretan deu e? Baia, batu eitten deu. Da gero, soltetan danien, materižek danak atara, da barriro be kimpul'orrižas euki serien. Da andittuek...

– Ser, errementeu?

· Bai, bai, beres eitten deu. Beres eitten deu. Ensegida, eitten deu. Osea, kimpulien da serak, ensegida soltetan deu, da beres.

– Soldeu, ser da? Errementeu ala?

· Es. Soldeu materiže eiñ, eiñ; eldu eiñ bideu andittuek. Ostantxien ese ipintte'es bosu materiže eitten dempora asko eittotzu, esta? Ta bestera, es; bestera enseida materiže sertzen deu. Beroas, soldu. Soldu esaten žako.

– Da, ori jaboias da ori...?

· Jaboia d'ardaua.

– Da, ori selan eitten da?

· Jaboias txikittu.

– Lapikoan ala?

· Sartan sar baten neikoa da. Jaboias nas-teu.

– Da gero, bueltan, andittue dauen ganien ipiñi?

· Ganien ipiñi. Da, euki an, esatebateako geubien badekosu, urrungo goixien kimpule orri bat, da a barruko mistxue fin, fin, fiñe, kendu da, a sera tapia eitten deu ba, an orižo irikitten asi arte brasa ganien euki. Da, biun, biun, biun eitten da. De gero, bot'orižo, espada orižo dana ser eitten da, esta?

An dauen orižo bota, ta bere berotasunas, tak! ipiñi. Batu eitten da andittue, batu eitten da, soldu, soldu.

– Ser saldarra?

· Es, edoseiñ andittu.  
Soldute dauen jeneroa.

– Da, kimpulia be ixeten da ona, esta?

· Bai, alan da. Ori lenau be esan dou.

– Beste bedarrrik estau ori, olan tirezeko?

· Bai. Onak san bedarrak esaten žako.

– Orrek, selan ipintten die?

· Orre'pe orižotan tosteute. Orižotan berotu, da, ipintten die, baia orrek baiño ondiño ariñau eitten dana ori de. Leleko jaboias, d'ardauas eiñ masia da, geu beten a euki. Da gero, urrungo goixien kimpulia erre, an brasa ganien.

A, barruko mistxue be kendu e? Bigundu. Irikitten asten da orižo, orduentxi. A, orižo, ta total err'esteižen kendu, d'axe. Da, soldu eitten da ariñau.

**130.** – Ankak olan, ixerdi larrei botateko, botaten dabengan, ser eitten da?, ori..., neurtzeko edo...?

· Ankak e..., ixerdiže asko botaten deuenak e?, amen gurien eitten derena es. Egunaro ankia garbitzen bada, ak ixerdiže geižau botako deu. Nik egunero garbitzoas anka e?, nire ixerdiže nos ikusi'osu, anketakoa? Beres, ixerdiže botaten estosulako. Nik jokakuko'tzut suri, oiñ es, neguen es, ombre!, Arpille, Aprille erdittik gora, euskiže apurbet berotzen deuenien.

Asteko, ni egunaro anka garbitzen, da, abarkak da, galtzak ointxe žasten doasan moduen žantz, d'ixerdiže baietz bota!!! Estakixuba suk, e... anka ur beroas garbitzen soanenien, estakixu ak, urek odolari tietzotzena berantza? Ori, suk ni paño obeto žakin bisenke. Otza balitz, ondiño, gitxiau, ba... beroa txarra. Ori, žakin bisenke ba. Kalboena deko? Ba, igual, igual, igual.

Da, orduen, olan bedarrakas edo olakokas esta...?

**131.** – Da, «jiba» bakixu ser dan? Txepia, txepia. Ori, selan etorten da? Da datorrenian, ser eitten da, ori kentzeko?

· Aiena!, aiena! Edadiena bada, oiñ niri txepia nok kendu? Marižen aistia! A! A, bereskoa san. A, bereskoa. Bereskoa kentzekorik, estau. Opeasiñoa. Aur Balentiñ, lau biderres opeasiñoak eiñye, gero atzenien andižauas geatu sen.

Balentiñ «karreterue». Ori bereskoa, uste dot e? Lau opeasiño eiñ eskero, kentzekotan kenduko eutzien. Da, atzenien andižau euki euen. Orrek, orrek, beeskoak-tie. Da, au beiñ sasoa bat eskeo, sanak enkojidu. A, txepia etorri es eitteko, sasoi onena, bierrik eiñ baik, ondo jan, da geldi egon oba! Ja, ja, ja...

– Da, olan txeposoak se pentzetan da? Apurbet, ser pentzetan deu jentiak: txeposoak apurbet serak diela edo...?

· Ara, txeposoak batzuk daus ba... sanuen beste konosimentue estekienak, datosenak ba gastetatik. Baia, beste batzuk daus normalak; esatebateako, amen, onen andrien aistia, txeposia san jaižokeratik esta? Baia, žostune gitxi, gitxilakoa.

Beste batzuk dekosus txeposoak, estutziena, entenimentue be estutziena sartzien. D'ori, asko eitten deuela pentzetot, pentzeu eittot neuk, euren artien sartzien žakiela buruen: Oño!, ni segaitti nok txeposoa?, beste batzuk eta, esta? Ori, pentzamentu berdiori, ser ori, dekiela buruen. Sartute, aixe sartute. Se pentzamentue, edoseiñ personientzat, pentzamentue be sartzien bažako buruen, geuse gatxa da, a pentzamentue botatia. Esta erresa, gatxa.

**131 (bis).** – Da gero, olan erre ta igual ampolle bat edo seoser, ori kentzeko ser eitten da?

· Igoal e... orižo žeusi edo... seoser irikiñe...? Ori, ori, ipinttotzie untire bat.

– Es, lenau, lenau.

· Oiñ, d'oiñ be bai. Erria askok eitten deu uras busti. Txarrena. Errientzat onena da, euki eskeo etxien urune, blasta! Igurdi bes e? Artu-te, blasta! Ra!, Sikue danles, txupeu eitten deu. Da gero be a uras es garbittu. Gero be a, aleiken gustiže trapu siku, siku betas, kontus, kontus, kontus kendu, da gero orižo gordiñe apurtxu bet emon, freskeu deitten. Geuserik onena neutzako aixe da, orižo gordiñe. Se, ni neuk, erre neuen ementxe ba, urte asko da.

Lenau ba, galdaillen egostesan esnia, esta?

Zoan nitzen ataaten, da egur betek galdailiari au eiñason (irauliaren seña egin eban), ankara žausi, da on nitzen ondiño abarkak žantzi barik, da urune, sorroa egoan eskatzien.

D'entzunde on nitzen. Artu-te, rra! da, ako!, da freskeu eitten deu, e? Da, ako sertu sanien, kendu, alegiñes, dan, dan, dana esta kentzen, miñ eitten da ta, baia aimbet ondoen kendu te gero, orižo gordiñas unteu.

**132.** – Da gero, umien geixoak, selango geixoak ixeten die? «Sarampión»... Ori, gorri, gorri tte...

· A, elgorriže! esatotzu guk.

– Da, beste geixorik badau? Olan, «escarlina» edo olakorik?

· Bai, baia au elgorriže urtekeran, da ona, argiže; olako bombillari trapu gorriže, jo deižola kolore gorrižek, elgorriže. Da, erresau urtetan deu. Elgorrižek urtetako oixe da onena. Trapu gorriže ipiñi bombillari, da berotan euki umia. Oixe, berotan.

– Da, besterik estau?, olan e... «viruela» esaten sana, edo olakorik?

· Ba..., 'biruelas' lenau umiak ill eitten sien, baltzittu, baltzittu. Amentxe, amentxe il sen bat, sarrena. Onek e... Pantxike bixi da oin be. Orren alabaik sarrena, oixe birueliak emon da, alderdiže dana baltzittu. Esteko erremedižorik birueliak. Oiñ, estait. Baia, len es. Len birueliak eltze-utzena ill eitten san. Baltzittu eitten die. Oin estait, e? Oiñ, akaso, selako adelantuetausen.

– Ta, orrek kuretako, orrek «sarampión»; bueno, elgorriže ta, esaten dosu sera..., argiže...?

· Da, beroa. Orrek esteko erremedižorik.

– Da, bestia, ori «viruela»?

· Es, es. Biruela len beintzet es. Oiñ, estait e? Atara badere seren bat, baia len, birueliak ebatzotzena ill eitte'san.

**133.** – Da, «fibre urticaria», ori segaittik etorten da-ta?

· Bai, 'fiebres urticarias' granoape urtetan dere, d'orrek granoak txarratie. Ori, ori žan, žan txarrak pentzot ataako dabela; žatekoak, kalte eiñye, pentzot datorrela ori, e? Neure ustes, e? Ori terriblia, gure mutillek gastetan; joder!!! Nik ondo ein birrian, se ein neuen?: binagria, edo... emo'notzen nik Jorjeri. Da, gixajoa! itzelak paseu seusen!

Olan ibilli giñen binagrias, baia es pentzeu: olako ampollek. D'askurek, da askure, da askure. D'ori žanak eitten deueta pentze'tot, e? A, žatune san gastetan, oiñ be bai; baia, da pentze'tot žanak e! Da, nik ondo bierres e..., binagria eiñ, katxis la mar!!!, gixajoa!!!

– Askure geizau emonda orduen?

· Bai, tte erre, erre.

– Da, ori orduen, da ori kuretako?

· Ari gero porsi, beres žoan žakon. Beres žoan žakon. Baia, nik pentze'tot, onena, onena eskuseure. Estamangue garbittu. Bai, onen, onena, ori e? Estamangue garbitzia. Da, geuse garbiže žan. Garbiže, grasa barik, geuse garbiže, orixe.

**134.** – Da, bueno, au sarren geusia «reumatismo», selan esaten da? «Reuma», esango dosu? Erreumia?

· Bai, erreumia. Orrentzat, erreumientzat, onek estustie ixten, baia, berakatzan ure, pentze'tot onena dala.

– Berakatzan ure, selan? Edan ori be?

· Bai, eran, eran. Berakatz atal bi satittute ipiñi, txiki, txiki eiñye, d'urrungo goixien eran.

– Irikiñ ori?

· Es, es, es. Uretan itxi, tte urrungo goixien aixe eran. Gustu txarra!

– Bareus, es? Da, gero žan, andik...?

· Bai, andik amar minutu edo ordu erdire. Baia, gustu txarra...?

– Da, baten, artzen dosu egunien?

· Bai, baten bakarrik artu be eiñyot. Baten bakarrik. Baia, berien e... besoa, ja...! Da artzen segidu biot nik.

– Da, osea, egunien baten artzen dosu ori, ala?

· Es, ori, gero ba, artzen asten danien be, egunien baten. D'igertzen danien miñe gixittues doala, ba..., «reposo» esaten žako: es artu.

Da, barrero igerten bažako andik egun bire edo, ba..., artu barrero. D'onek kalenturien moduen. Da ser emon bideu? Baia, siñistu be'sileike, niri besoan eyustena. Besoa, euki neuen astun, de miñ. Eran neuen, da..., karamba!!! aian mejoriže eiñ eskero, mesidu deu eratia; ja...! Da, erreumientzat dauenik onena, beakatz da, beakatz. Leku askotan e..., erreumia dekonak, beakatz egunien, igual buru pare bat, p'igual, žaten deres. Diarižo es, baia, lau, bost egunien žan, da gero, egon

apurbet, de deskantzeu. Gordiñik. Onek, Tere Sabalak pe, solteetan be, žaten euen beakata olantxi: erreumiena sentitan deuela ta, oiñ geur erreumiena baritabill.

**135.** – Da, au entzungo zendun, «lumbago» esaten dabe erderas. Emen garrižen, sera. Iños entzun dosu ori? D'ori segaitti da?

• Orrek ixen asko deko.

– Da, selan, selan esaten deutzesu?

• Orrek e... beittu. Orrek e... bierrik eitte'-steuenari be etorten žako ori.

– Selan?

• Bierrik eitten estuenari be etorten žako ori; ori etorten žako. Da, ori sarritten e... deko orrek peligrue, posture txarrien žesarritte otiak pe bai.

Posture txarrien kedia, odola. Posture txarra oiyembe, ba..., neuri be sarri pasežat eta ondiño ontzu be bai. Ia, besuen ganien olan ipiñi burue, e? Da, sirkulasiño baltia. Kalam-briata eraiñye, nekes odola korrietan asi.

Orrek kedok tie txarrak. Se odola sertzen dau, gelditzen dau.

– Da, ori selan, kuretako edo seoser entzun dosu iños, edo...?

• Orreri, orrentzat pentzot dana onena, igurdi, aber, sirkulasiñoa..., igurdi, igurdi. Se, neu onas emen, gerrittik, da nik uneko geixoa dekot, esta? Baia, ego'nas esiñ aguan-teute, neu e?

Aldan gustiže, atzamarras igurditte, igurdi; joño!!! miñe atzeratu, atzeatu miñe; baia, noberak eittia baiño, beste'atek eittia da oba. Se, noberak miñe eitten bažako edo ba, orrei sakatu embižako. Beste baten eskue da ona, noberia baiño, beste'atena da obia beti, beti hestiena obia.

– D'igurdi, segas?

• Atzamar utzekas be bai, onetara be igual, ba onetara. Da, onena au de. Nik sartuko neke sure atzamarra, ño! Baia, norberien, e? Aiena! Noberentzat beste bat, bestien eskue oba.

**136.** – Bueno, beste bat, «derrame sinovial» esaten deutze. Onek beleunien, au asurre, osea, emen jo, ta emen boltza bat dau, ur boltza bat edo. Ori, ori iños apurtu ta ure kendu; ori entzun dosu iños?

• Or, e, or, e, operasiñoa be askok eukitten deu, operasiñoa be. Or, segun, segun,

ser dauen. Badau sera, «ácido úrico», estau operasiñorik; da bestia, suk esausune ure edo ori, bolia formetan bada, or operasiñoa dau. 'Acido úricok' esteko operasiñoa.

– Da, ori kentzeko estosu...?

• Es, es, es. Ori, ori... estakixu baia or, onek asurronek katillu bet deko. Da, ori katillu ori, olan mogidu, baia, olan ure urteta-ko besteik eiñ bai? Ori, aprobeu eiñ bilei.

**137.** – Len esan dotzut, «raqutismo» ori. Ori, selan ixeten da, edo selan kureu?

• «Raquitismo» dau: geixoena da bat. Da, beste bat da, umia žakana bada, bidan beste esteu irebasten. Da, orreri b'esaten žako «raqutismo». Baia, geixoena da ori; au «rakitismo» žan esena bada, urtias ya, apitittoa sartzen danien, gorputze barristetan da. Baia, geixoena bada es. Geixoena bada, «rakitismoa» geixotik badatorko, a beti ixengo da «rakitismoa». Da, žakanena bada, iñyerra artzen dotzenien gorputzek, žaten asten danien, normalixetan da gorputze.

– Zakana esan dosu, ori..., ser esan gure dau?

• Zakana, žateko gania es umiak da, serien... Geurien auxe mutilleu on san. Oiñ, beittu, beatzi urtas selako gorputze dekon. Da, gastetan žakana ixen, da umia olantxi.

D'esan notzien: umiari, emoižosue gero sera..., ekarri au... «asite hígado bacalao». Emo'notzen d'asi sen žaten, da beittu beatzi urtas selakoa, ba lodiže esta, baia alturia dekon.

– Da, ori kuretako, orduen, suk esan dosune, berestik dana...?

• Beresti dana, estau.

– Bestia, ba...

• Geixoti dana, esta mejoretan. Da, žakanena, bai. D'orreri oixe embižako.

**138.** – Ta, gangrenia, ori esagutzen dosu, es? • Grangenia, bai, grangenia (sic).

– Ta, orrentzat se erremedižo edo selan...?

• Kangrenia, orrentzat erremedižoa, ariñ akordeu eskero, indisiñoakas sertzen bada, ostien kortadia deko orrek, ebai. Da, pasetan bažako, esteko salbasiñoik. Paseu orduko, akordeu bida kangrenias. Enkangrenias e..., au gure usaba defuntue be, enkangrenias ill sen. Baia, sartzaroen be, sarra san, baia, enkangrenia. Seaitti, badakixu? Sapatien urrututi. Sapatiaik urrutu te antxe miñ ye, miñ. Da.

baten ankia baltzitzen asitte euki euen, da, ortxe portalien on san. D'esa'notzen: ño!, orrek..., anki orrek, tipo txarra barrentetozet.

Da, es..., estok eser, importantzirik estozet emon. Gero, ankia ebai eiñ bixeutzien. Enkangrenias, «mucho cuidao»!, ariñ akordeu eskero, seose, baia ostien e...

**139.** – Da, olan begižetako geixorik, edo esagutzen dosu?

· Ba, begižetako geixoak: ulseria, begižetako ulseria, begižetako ulseria be, oten da. Da, beste bat, txarra dala be, esaten derie: sanak enkojietan barruen asi eskero. Enkojietan, sanak asten diela enkojietan. Da, a dala txarra. A itzutute, estauela seeñik. Ulseria bai, ulseria kuretan da.

– Ulseria, selan kuretan da?

· Ulseria ba..., begiže tapeu te gota batzuk, neupe, eukitte nau ulseria. Da, begiže tapeu eitten dere, da gota batzuk bota. Da, ederto.

Begižetako geixorik. Begižetako geixoa lenauko sarrak esateuriena au de baserik printzipalena, goixien žeki, ur irikiñas garbittu. Onena dala esateurien, onena ori esateurien batzuk. Beste batzuk esateurien ba mantzanillia edo olakoa sertu, da a be obia dala.

Batzuri eittotzie, esatebaterako, ba ipiñitien dere batzuk ba, goixien bota limoia geubien ureri ta a eran. Neuetzat txarra. Ak niri ondiño kalte geižau eitten dust. Da ori nik pentzeot ixengo dala ba naturalesien gora beria edo orixe, nire umorižen esta sartzen. Da gero daus beste bedar batzuk, ba olan, urteutzie lora txiki-txiki bet ta barruen dekies erroak olan e, arek be serbiten dere geuse askotarako, bai estamangue libretako, bai erreumientzat, da artikulo askotarako, erremedižo askotarako.

Baia nik pentzetan doana da, persona danari estoskule igual eitten, da ori ikusiko deuela naturalesiak. Nik ori, neure sera ori de. Naturalesiak ikusiko deuela ori.

Ontxe da epokarik onena. S. Juan ingurue, bedar gustižetan, botika-bedar gustižetan.

Karraskilloa: takoak ein, egosi ta onexen moduen, asala kendute-e, egosi, geroago ta meiago ein ta onek ixten deu ure, kafia, kafe baltza, igual-igual.

– Da, bedarrik edo olakorik edo mantzanillie ure?

· Es, es, mantzanillien ure, mantzanillien uras, astien beiñ, danok garbittu bigeinkes be-

gižek. Mantzanillien ure da burureko, begižetako, d'estamangureko dauenik onena. Estamanguen be, nik arien tripetako miñe sentietan doanien be, niri, mantzanillia.

– Da, beste geixorik, estosu begižetako beste geixorik esagutzen...?

· Es, nik estekot entzutia. Au sea... bai, orrena, sanena be, žakin neuen nik ixena len ba, au sanak enkojietan dana be.

– Kataratak?

· Es, katarata, ganeko telia. Katarata da, telia. Baia, ori bestiari erregular, bistera doansen sanak, sanak, sirkuleu es bidan moduen, da arek itzutu eitten die.

**140.** – Da, erderas «orzuelo» esaten da. Emen, grano bat urtetan deuenien, ori selan esaten dosu?

· Gariže?

– Emen, begižen.

· Txiñorra.

– Da, ori segaittik urtetan deu?

· Ori, nik uste dot e..., lenauko sarrak esat'eurien: ene, eperdiže ikusi'tzu. Txiñorrak urtengo'tzu. Baia, ori, nik pen'tzot, kontue ixengo dala.

Ori, odola, odola pen'tzot ixengo dala. Se, ba eperdiže ikusi te txiñorra ka! Es, ori odola ixengo da. Lenauko sarren esakeria.

– Neupe entzunde dekot ori, e? Neupe txikitten etxien entzunde ba, txiñorra urtetan deutzenak, bestiari eperdiže ikusi'otzela.

· Bai, neupe birriten edo eukitte, ama defuntiak: klaro!, eperdiže ikusiko seuntzen baten bateri. Baya, ori, odola, odola.

– Odolak, berenoen bat, edo sikiñen bat euki...?

· Selan urtan dere garižek? Ba, ori be odola da dana. Aixé, aixé.

– Da, ori kentzeko, txiñorra kentzeko, ser?

· Txiñorra kentzeko, onena da txarrižen koipegasia. Txarrižen koipegasia. Txarrižena.

– Bai, selan?

· Axegas unteu. Da, ak bigundu eitten deu, d'ensigida desapaesietan da. Txiñorra da, miñ ixeten da, gero molestoso! Da, aixé. Nik beintzet, birriten euki ta bižetan aixas kureu neuen.

– Da, miñik emoten dau, txiñorrak?

· Bai, pikorra beti. Molesteu, molestu asko eitten deu txiñorrak. Bai.

**141.** – Da, olan batzutan begižen sartzen da, ba estaitt, bedartxu bet edo ule bat edo seoser, es? Da, ori ataateko, selan eitten da?

· Beittu. Sartzen bosu iños, auxe eiñ: au, altzeu, da au sartu olan.

– Bai, bai, aitzen dot. Beko aldetik...

· Ni neuk orretantxi. Bekoa gora sartu, ta geizau sartu oba. Ensegida garbitzen da begiže.

– Beko, sera, selan esaten dotzesu oni?

· Beko betulia, goikoen aspire sartu. Da, begiže karias edo agas edo onas erretan bosu, arda baltza atoa.

– Bai, e?

· Ill eitten deu. Igurdi bes, igurdi bes, arda baltzas e... unteu, da atoa dau. Beittu, kariarriže, kariarriže uras bustitte. Botaixu arda da gogortu. Da, aattik begiže, ba ni arbaiñela ixen'as, esta? Ta, sarri begiže erre, ta rra! arda baltza. Da, esebes; gorrittu esebes, txupeu, odola be txupeu eitten deu, da, es igurdi, e?

– Da, olan bestela paiñeloas ta olan, es?

· Es, es, es, txarrena. Txarrena. Erretan bosu seoser, arda. Ta, batzuk ekittotzie sigarro papelas topetan olan, da topetan, da atrasurik andižena. Se, erritteu eitten da begiže ta.

**142.** – Da, bueno, «estrabismo» esaten da erderas. Olan begižek apurbet oker eukittia edo...?

· Bieskia, bieskia, esato'tzu guk.

– Bai, da ori selan? Ori kureu lei edo?

· Ori, oiñ askori antijuekas kuretan žako. Onek ume gastetxuek. Nik ukusitte dekoas, ementxe Katian be, mutiko bat sietz, esta? T'oiñ, begižek ondo dekos. Ori, antijuekas sertzzen dere.

**143.** – Da, itzue, segaittik etorten da? Edo, itzu gelditzia?

· Itzu gelditzia ba, ortxe dau ba, orrek sanak. Bixtera dausen serak sirkuleu es ondo. Da, oiñ sarsaroan bixtia askori seaitti kantzetan žakon?

Orrepe, kantzetan žoa. Geuse gustižek, gorpuz gustiže kantzetan žoa, kantzetan žoa. Beste'atzuk gor ensegida paretan die, da beste batzuk (belaunak erakutsiz) auxe. Oixe da dana.

– Da, beste nonondik esta etorten, olan itzu gelditzia edo? Edo, begižek sarriten erre edo olakorik...?

· Bai. Beste bat dau, beste bat peligrosoa, esatebateako, paretan da bat nerbižoso, esta? A!, iñyerra, txarra. Begižentzat, txarra. Bixtia euneko, estait sembat kantze'teide aren serien..., a, iñyerrien.

– Da, klaro! ori, or sartzeko estau eser?

· Es, es, es. Beiñ, ara, bixtia beiñ kantzeu eskero, ekartia geuse gatxa da. Da, endemas, edade bat'eskeo sarra bada... Gastiak akaso, baia, sarra bada es, e? Da, gastia be, seguru es. Bixtia d'orrek, geuse delikeuek die.

**144.** – Da, olan belarrižetako geixorik esagutzen dosu? Olan, belarrižetakorik?

· Belarrižetako geixoa, geixoa, belarrižetako miñek pai. Da, belarrižetako miñe, ni neupe eukitte nau. Da, amen daus, or gur'orman daus, ebaibedarran mouko txikitxue, or daus, orrek bedarrak, aras igurdi tte ure arana bota, da orižoa b'ona dala esaten dere. Baia, orrek bedarrak obiak dies, satiže obiak die.

– Da, selan deukie ixena orrek, bedarrok?

· Orrek e..., belarrižetako esatotzu guk. Belarrižetako arrakadak tie, baia, belarrižetako guk esatotzu.

– Da, ori osatzeko selan, eitten dosue? Igurdi?

· Suk belarriko miñe badekosu, a berdian danles, belarrižen sartu-te, estutu urek urten deižon, urek urten deižon, belarri sulora žoa deitten ure. Urek urten deižon.

– Da, gero, a ure?

· Dauela bertan. Bertan dauela. Olan on apur beten.

Geroau ta barrurau žoa deitten, olan sera, miñ dekosun alderrireko oba.

– Bestela, es, egositte ure artu-te...?

· Es, es, es. A, bera, bera, bera.

**145.** · Orrek danok datos ixerdi otzetatik, se guk estu gorputze kuretan. Ixerdiže dauenien beti mudeu.

Ori belarri ostetik mimpera dator. Gorputzen txarreti datoz olakoak. Ori kuretako onen onena da guata alkolas busti da ipiñi da ser batas, toalle batas, tapaboka batas. Guatiari alkola bota, erre a, da toalle batas edo tapaboka batas lotu saman.

Emplastue be eitten da berbenakas, onek

san bedarrakas be. Txiki txiki, eiñ. Gero jaboia apur bet be bai. Saiže be bai. Sartanien loditzen danien orižo apur bet edo saiže bota. Saiže baiño obeto mostasia. Da gero bero berotan imiñi saman. Da gero toalle batas lotu saman.

Samia okertu esin, žan b'esin, irusten be min. Da aittoen tripepeko lania ipiñi saman da pañelo edo trapu betas sostenietako, amarreu. Ak useiñe eukitten deu da ganera grasia be bai.

**146.** Paperak eser žan esinye euki neusen nik. Arittoen tripepien ulia ebai da a ta a grasia ipiñi pañelo bategas lotute da sote-niute. Ak berateko koipe, ixerdiže da grasia. d'arek berotu eitteuen. Da ak txupeu edo es-taitt ser eitteuen.

**147.** Ardižeri t'olan ankia apurtzen sanien, arrutzia batidu da kedarrias nasteu da trapu fuerte baten sabaldu ta ipiñi apurtute euken lekuen da bueltaka bueltaka lotu. Da batzuri, artesau geratu žakien, sesto simitzek ipiñi bueltan da lotu kordelas.

6/8 egunien inketan asten žakien ankia. Gero palu ori kentzen žakien. Da kendu tre-txu ori d'ibilltten sien.

Amamari txarrižek bota eiñ euen da an-kia apurtu otzen. Tio Plorentiñok olesko kajia eiñ eutzen ankia artes euki daižen, mobidu barik. Seuser bendajien batzuk edo ipiniko eutziesan baia estekot akordurik, ango žoan etorriženik.

Simitze, sestoak eitteko simitze ipiñi goitti te beti, da bendia ondo estutu. Apur bet beste satizen parien ipiñi kontus asurre oker ba-dau, da bendia ondo estutute ipiñi tte itxi olantxi.

**148.** Iños einyot orižoa sartanien imiñi d'iri-kitten dauenien gatza bota areri da palutxu bateri goatia ipiñi punten. A busti d'ispilluas edo ikutu agiñien, suloa dauen lekuen. Da ni neurí kend'usten. Agiñek suloa edo seuser euki euen. Beste batzuri be neuk emo'notzien. Da orduen kendu žakien. Oiñ, geroko barririk estakitt.

Agiñek kuretako onena, agiñek garbitzia ixeten da. Askori agiñek baltzittu eitten ža-kos. Ori geixoa da. Garbittu bidie, bestela su-lotzen asiko žatzus agiñok.

**149.** Gastetan loka loka dausen aginek, ari betas. Orduen ari bet lotu te golpien atara.

Baia sano loka dauenien. Itxi eskero lotzen, edoseiñen atarat'euen.

**150.** Iños estotzet entzun iñori orretako žoan etorririk.

**151.** Frakatzuek mutilleri da neskatoari ba gonak, en jeneal, eitten sien. Da neskatoari olan bragatxu batzuk imiñtteko. Umiak kas-kondu arte, bape barik ibilltte sien. Kampotik gona antzeko batas.

**152.** Nik estot entzun eser olakorik. Sabal-bekoan Gillermon mutil bet egon san.

Iños entzun dot sustutik artzen dala baia olako žoan etorririk estot iños esetu.

Sabalbekoak žaižokerarik edo eukiko euen. Da gasteik il san. Bilbon edo egon bideu seoser da Aldanako bat alako leku beten edo euki eren eskola ikesten. D'ikesi euen.

**153.** Uras busti, edo garbittu edo trapu bet ipiñi. Gerran odol asko botaten bauen goma tire batzuk ibilltten eresan d'arekas lotu.

Besterik esegoanien, kožetan san trapuas lotu. Trapue edosein koloretakoa. Da pañeloa be igual. D'olan pastan sien.

**154.** Atzamarrak olan pintxos beterik euki-tten gendusen. Orratzas atara da gero saka-tu, ta arien odoltxuek urtetan baeuen, obe-to. Ariñau kuretako san. Lusero euki eskero, soldu be eitten sien da materiže formeu be bai. Materiže eiñ eskero, apur bet puntia li-breu, sakatu te beres urtet'euen. Baia min-gorra ixete'san.

Ebai bedarrak esaten žakienak be baego-san. Orriže loditxue eukittuen da laban laba-na. Apur bet berotu alde batetik ta mintze kendu da koipe gasien antzekoa gelditzen žakon. Da a ipiñi eriden. Da ariñ osaten sien ebaižek. Ebai bedarra da balsamu bedarra esaten žakon orri.

**155.** Josepari Ixeduko txakurrek ainke eiñ da urrutu eiñeutzen. Benda edo trapu suriže edo olako seoser ipiñi tte kureu žakon.

Txakur amorratuek obatute, esate'uren Sal-batierrara eroat'eresala. Da an nik estaitt pa ser eittotzien.

Amurru aldižek emoteutzenien, edoseri obatu ta bueltaka ibilltten san txakurre.

Bustena tripepien da agoa sabalik da bi-tze darižola alboetati, ibilltten sien. Artesien

žoaten sien da nobera be bidien etorri eskeo aparteue eimbier.

156. · Ta, subiak eta badaus emen, piketan dabenak?

· Subia'pai, piketan derenak ongo es-tieba? Baia subiak nik sekule subiai billurrik estotzet euki.

– Segaitti edo?

· Niri ebatusten subiak, baten ebatust. Bai, da ortxe lxedu oiñ esteu esistietan, baia lxeu baiño aratxo an, gastaiñe marro bat on san. Da nik, beižek eroaten neusen ara. Ta, mutikoa. Da, okill suloa gastaiñe marroan. Da, mutikoen kontuek!, ižon dot, da ta! ta! jo ta okillek saata eitten jaaa... eitten deu umiak, da joño! aren antzera subiape saata. Sartzot atzamarra da atzamar punteti eiñ ainke.

Da gero, Satur Arotzako defuntue etorri sen da: seosek obatu deust, Satur.

– Nun?

Seosek pike'ust. Begittu otzen da, atzamarra... A! baia subiak eldu-otzu.

Soas ariñ neuk eroango'oas beižek eta soas ariñ. Etorri nas etxera bai, lotu'usten gero leleko kordelas, berak besoa, fuerte e? Lotu'usten, abarkiai kendu'utzen kordela ta lot'usten. Etorri nas aiñeketan da, ama defuntia eguan etxien: medikuana žoan biot.

– Ser ba?

– Ta, subiak eldu-uste.

Etxera seaitti esara etorri? Ataa gintzen erropa bustižekas, erropa sarrakas. Bueno, «Txoiže» medikue, da, emousten indisino bat da, esausten: oiñ, etxera oanien, ur beotan sartuik apurbet ta, pastille bat emo'usten, so-limaue, ur berora botateko.

'Ta, sartik atzamarra bi ordutik bi ordure ta yasta! Baia gero oten nitzen or, telebisiñoan: subiak ebatu arren estauela kuideurik. Ibilli bidala edo bixerra kentzeko oja bat edo kutxillo bat sorrotza. Subiak, eltzen deuen lekuen, rra! ebaize eiñ, artu palu bet eta žo, žo, žo eiñ.

Leleko lotu, da žo, žo, žo eiñ, da setan medikuana žoan be estauela, esateuen.

– Baia, odol txar gustiže?

· Bai, bai, atara. Aimbet aiñen da, baespada lotu. Da jo, jo, jo eiñ d'odola atara, aimbet aldan gustiže da, setan medikuana be žoan be estala.

Fran ero gastia sala, aritz marroan obatu otzen txori bille žoanda. Da botikera eroaurien. Seuser emo'tzien da žoan žakon.

157. – Da, olan aramuek ta piketan dabe, aramuepe edo...?

· Aramuek daus batzuk berenosoak da beste batzuk es.

– Emen be bai, emen? Emen esaten dot...

· Bai, emen, emen be bai; emen be bai.

Oño!, igual geubien batek urtetan deu geubien, badoa etxera, ogera, esteko eser arpeizen, d'igual urrungo goixien, tra!!! granoa deko. Igual tak! aramuen batek lo dauela, pikeute.

Berakatzas eiñye kendu lei. Berakatzas apurtu d'aren uras da mamiñas igurdi, igurdi. Estena al basan, atara al san moduen. Da gero igurdi, igurdi, d'aixas.

Ulebižoak bietzetik obatu eusten neuri be. Oixe ein neutzen d'osatu san.

158. · Ankia apurtze'sanien, kajia olas eitte'ien ankien lodikoa, ubekodune, da ganien libre itxi bikotzien ankia mogietako.

159. · Binagrias edo alkolas igurditte, beste žoan etorririparik osatzeko.

Binagria atara katillu batera edo kikara batera da gatza bota, da trapu betegas igurdi, igurdi, igurdi. Golpia artute atoan ixen eskerro odol batue eitten esotzen isten binagriak. Binagriak odola txupeu eitte'uen. Odolari bätzen estotzo isten.

Da gatzas eiñ eskero, ondiño obeto. Asunekas garriko miñe da lepoko miñe da buruko miñe euki, da igurdi, igurdi, da gero binagrias busti da niri sano kentze'usten.

Ankia bižortzen danien andittu eitten da. Da santietuena eiñ bida. Sano molestetan badeu euki lei asurre kaskeute. Ostantxien santietuena eiñye naikoa da.

160. · Gerran ikusi neittusen atzamarrak baltz-baltz eiñye, atzamarrak asur utzien pareute. Estakitt selan kureko eres an ospittelien. Emen estot eseutu olakorik.

Santi, esateurien mankeu sanien gomakas lotutziela. Kamillen eroaerela esateren botikera. Aldanatik Garittondora, d'andik botikera. Da leleko arrape'ren kotxias ospittelera.

161. · Or esaten dere onena tripetik obatu ta sakatzia dala. Edo gerrittik pe bai t'ataraso barruko serak. Eletrisidadia be esaten dere «corto circuito» bat emon da salbetan dere-sela. Baia esta segurue. Erre eitten deu. Onena, burus bera ipiñi da igurdi gorputze batetik bestera.



**162.** · Arnasia baeuken edo espaeuken edo bižotzien seoser baeken edo, or igerte san. Beiñ ill ezkeru personia, koloria kambizetan da. Kaittano defuntue nik illye soloan ikusi neuen. Ari desganiak edo emo'otzen, orduen ekarri sittuen eskutok, bota d'antxe ganién geatu san. Ak tensiñoa edo eukiko euen da pentzetot tensiñoas geatuko sala. Moreute egoan arpeize. Ardau koloretute egoan.

**163.** · Derrepente ill yala. Orduen iñok esekižen tensiñoa ser san. Bižotzetik edo tensiñotik illtten sien. Apendixe be esekižen ser san lenau-te: tripetako miñek ta tripetako miñek. Gixon batek tripetako miñek eukesala ta tripetako miñek. Da medikuek esekižen ser san. Bateri penak sostenietako ol bat ipiñi otzien aspisen. Da goraka emoeutzen obramentuek agotik, segun esate'erendik. Da ori botaten asi da blast! ill atoan.

**164.** · Neskato batek olgetan kobresko txakur txikiže iruntzi.

Da estu te larri. Da žoan sien medikuana. Da esatzen obretan deuenien ba errekistetako. Botaten badeu estala eser pasetan da. Da bota eyeuela esateren.

Kaka bedarrak be ibilltten sien lenau topetan. Neguen lurrien sakon bes, erpe trongoak eukitteresan. Udabarrižen orrižek urtetotzien. Orrek garbi garbi ipiñi d'egosi, d'orren ure edan, estamanguen siku dauenien, empatxue dauenien. Estaitt pa nik sembat edaten san. Baten eranda libretan botzien, naiko, baia arik eta libreu arte ekin embikotzen eraten.

Burukomiñe dauenerako edo, aretxari urtetotzien ide modukoak. Arepe egosi da edateresan. Estaitt se ojetotarako sien. Asun erpien ure be ona sala esateren burukomiñe edo egoanien. Asunen erpiak egosi da a ure edan. Odola metu edo estaitt se eitten deuen esaten dere. Asunekas garriko miñe da buruko miñe kentzeko igurdi, igurdi, igurdi. Da gero, binagrias paseu da berotu eitte san.

Lenauko berenoen kontrarižoa esnia san. Amen iges, Gerniken galtzadoriak, trembideko galtzadoriak, taberna batera žoan sien perretxikoak žaten. Da an egosan ume batzuri be emon'otziesan. Da umiak žan da etxera žoan sienien, etxien amak esnia emon, badespandan. Galtzadoriak danak ospittelera žoan bierra euki seren. Da mutikoari ese'be etxakien paseu.

**165.** · Txopo bat altue egoan d'ari be iru bi-

derrez žeusi žakon. D'askenengo gure etxon doan egoan piñutik goiko koarture sartu sen. Iñor egon balitz antxe illtten deu.

Sartu sen seretik, ormiari kanala eyotzen. Santokristo bat egon san orman ideltzoskoa. Da ak eukesan alambreak be erre. Da esate'ren oiñestariže egon eskero arbolapia txarra sala. Bakarrik elorrižen aspiže sala ona. Aixen aspižen paretako, ostantxien arbolakas kontus ibilltteko. Elorriže ona san iñestarižentzat arantzak eukesalako da Jesukristoren koroia pe arantzak eukesan. Orraittik sala ona esateren.

Baten telebisiñoan ikusi neuen leku garbiže dala onena da sutuni paiño burue lurrien eixunde. Biskergi ondoan Arburu esaten da leku bet. Araxe žeusi sen d'askatu eyuen arbola satiže. Bastante lusero egon san. D'ardiže da billotza be ill.

Embereneute itxi seittuen.

**166.** · Ak ukutu eskero estau eriderik. Nik soldautzen negoala kartan bota ustien selan il san Etxanoko bat; Eskubik esauen. Oiñestariže žeusi sen Alzibarren da alambretik ara korridu, eskatzera. Da esauen beleun puntetxue eukela erreta da surrien be erretxue. Alambreru ibilltten san. Aixiak postiak bota eiñ sittuela edo kustiñoa da se seusegas iku-tu ete eutzen alambriari da siku bota uen.

**167.** · Aguanteu geuk beintzet. Esin basan aguanteu, geispe bat edo topeu bier. Arto žorria da gari žotia ixeten sien txarrena. Da beroas garriko miñe eiñye ta ure eran da olan.

Bedar ebaitten be ixerditten berotute, geispetara žoan. Al danien geispera žoan eimbier derrigorrien. Ni iños Goikolandan bedarra ebaitten da bero. Kodaiñiri kostria eitten žakon, ugerra. Busti tte barriro kostria. D'esin ebai. Da itxi embier se esieiken eiñ-ye. Goi-xien edo illuntzižen ibilli bier listo. Baia goixa san onena.

**168.** · Etxat iños olako serik entzuterik suerteu.

**169.** · Aimbesteko sera eitteko osasuntzue ixengo san Sabalen bixi san amak konteteuen, beren amak konteute. Gure aittiten aitte Ataungoa sala esateuen. Eskombarrižek Ataungoak. Da gixonari soldau tokeu. Eskapeu soldautzetik. Da Gipuskoara etorten basan arrapeu. Da Biskaire etorri. Da Baltzolan baserri

bet artu. Andriak pe familiže euki. Da pastoriak ibilltten sien. Da andriari errekadue bota ta pastoriak ekarri eben andria. Da Baltzolan baserri bet artu t'ardi betzuk ipiņi seusen. Baia txakur bataittik usabas asarratu da, domusantuetarako testigu bižen eurrien esa'otzen: 'nire etxia libreu domu santuetan'. Da libreu embier. Gure ama aprillien žaižo da domusantuetan Etxanora etorri. Etxanosolora etorri sien. Da amaika urterarte egon san.

Da txalak beti porrillak artzotziesan. Da beste baserri beten bille asi. Da, Sabalen libre egoan. Sabalkoittire ižon euen. Da Klaratxu topeu. Klaratxu be eingotxue. Da gero Klaratxuen aittegas berba eiņ da artu eren Sabaleko etxe sarra.

Badaus persona altuek da sabalak, da osasun onas. Persona txikižek be badaus osasun onekoak. Ori naturalesiari begittu bižako. Aitte t'ama txikižek badie, sem'alabak be txikižek ixengo die. Altuek badie, aittek d'amak embiotzo aliminttue sartzera. Espabe

edosein geixo arrape'leike. Bai pulmoietakoa edo beste edosein geixo.

**170.** · Nik estaitt pa. Bierra sendo da žan gi-txi edo olako seoser embikoeren.

Argaltzeko, nik edosein argalduko neke botike barik. Gorputze nekeu embida, armosue baiņo lenau. Nire pixue 68/70 killo al-tuena. Da neguen 80 be arrapeta'neusen. Uden urtietan, egun bet galdu barik artoa ta gariže ereiņ da labrantzia eitten neuen. Or-duen žaten neuen baia lodittu bapes. Oiņ, aimbeste bier be geuse txarra da.

Persona asko urepe lodittu eitten deus. Argaltzeko gorputze nekeu embida. Oiņ argaltezko botikek artu d'orrek, baia osasune kentzen dere, kalte eitten dere.

Argaltzeko nobere gorputze nekeu embida. Tensiņoa dauenien kafe baltza be fuera, kafe batepe altzeu eitten deu-te.

**171.** – Estaki besterik.